

Unitate didaktikoa

Garapen Iraunkorrerako Helburuak ikasgelan

Zu ere parte zara!

17
GIH



Koordinazioa: Nekane Viota

Redacción: Amaia Uribe eta Iñaki Sainz

Diseño y maquetación: Dr. Minsky

Traducción: Bakun Itzulpen eta argitalpen zerbitzuak, S.L



1. Aurkezpena

Titulua	Garapen Iraunkorrerako Helburuak ikasgelan – Zu ere parte zara!
Maila	DBHko 1 eta 2.mailako ikasleak
Ikasgaiak	Gizarte Zientziak, Natur Zientziak eta Tutoretza
Iraupena	4-5 saio egitea gomendatzen da. Saio bakoitzak 50-60 minutu-tako iraupena izango du baina irakasle bakoitzak moldatu ditzake bere ikasgaiaren beharretara.
Laburpena	Unitate didaktiko honen bitartez DBHko 1 eta 2. mailako ikasleek Nazio Batuen Erakundearen (NBE) baitan dagoen Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendaren eta hau aurrera eramateko definitzen diren 17 Garapen Iraunkorrerako Helburuen (GIH-en) gerturatze lan bat egin nahi da. Horretarako, Agenda 2030 eta Garapen Iraunkorreko 17 Helburuak (GIH) aurkezteko saio bat egitea proposatzen da. Ondoren, GIH ezberdinak sektoreka lantzeko hainbat saio espezifiko proposatu dira. Nolai ere, ulertzen da GIH guztiak elkarrekin lotuta daudela eta modu integralean landu behar direla. Hori dela eta, irakasleei gomendatzen diegu 1. fitxarekin hasteko, eta, geroago, saio horretan ikasleek hautemandako gai/arazoen arabera, planteatu da hautatuko GIH zehatzekin lotuta dauden hiru fitxa gutxienez egitea.
Helburuak	• Munduan dauden arazo orokorrez jabetzea eta arazo hauek pairatzen dituzten pertsonetikiko enpatia garatzea/lantzea. • Munduko arazo orokorrak gure gertuko errealitatearekin elkarlotzea. • Arazoen aurrean konponbideak eta ekintzak planteatzea talde-lanaren eta ardura indibidualaren bitartez. • Garapen Iraunkorraren kontzeptua ezagutzea eta garapenerako alternatiba dela jabetzea eta GIH-ak horretarako tresna moduan ulertzea eta barneratzea. • GIH-en sakonketa lan bat gauzatzea.

Landuko diren edukiak	• Garapen iraunkorrerako agenda 2030 eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH). • Zer da Nazio Batuen Erakundea (NBE)? eta eginkizun nagusiak. • Munduko arazo orokorren identifikazioa eta taldeko hausnarketa • Garapena eta garapen iraunkorraren kontzeptuak zer diren. • Garapen iraunkorrerako helburu desberdinekin erlazionaturiko jarduerak eta talde-dinamikak.
Oinarrizko gaitasunak	Unitate didaktiko honen bitartez ondorengo oinarrizko gaitasunak indartuko dira: • Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna. • Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna. • Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna. • Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.
Metodologia	Talde-lan kooperatiboa Hausnarketa indibiduala eta kolektiboa
Jarduerak	Aurkezten den fitxa bakoitzak jarduera edo jarduera batzuk proposatzen ditu azaldutako gaiak ikasgelan modu erraz batean lantzeko.
Fitxa 00	Sarrera saioa: Garapen Iraunkorrerako Agenda 2030 eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak gerturatzen
Fitxa 01	GIH 1: Pobrezia desagertzea.
Fitxa 02	GIH 2: Gorerik ez izatea.
Fitxa 03	GIH 3: Osasun eta ongizatea.
Fitxa 04	GIH 4: Kalitate oneko hezkuntza.
Fitxa 05	GIH 5: Genero berdintasuna.
Fitxa 06	GIH 6: Edateko ura eta saneamendua.
Fitxa 07	GIH 7: Energia eskuragarri eta ez kutsatzailea.
Fitxa 08	GIH 8: Lan duina eta hazkunde ekonomikoa.

Fitxa 09	GIH 9: Industria, berrikuntza eta azpiegitura.
Fitxa 10	GIH 10: Desberdintasunak murriztea.
Fitxa 11	GIH 11: Hiri eta komunitate iraunkorrak.
Fitxa 12	GIH 12: Ekoizpen eta kontsumo arduratsua.
Fitxa 13	GIH 13: Klima babesteko ekintza.
Fitxa 14	GIH 14: Uretako bizitza.
Fitxa 15	GIH 15: Lehorreko bizitza.
Fitxa 16	GIH 16: Bakea, justizia eta instituzio sendoak.
Fitxa 17	GIH 17: Itunak helburuak lortzeko.

2. Zer dira Agenda 2030 eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH)?

Garapen Iraunkorrari buruzko 2015eko Mundu Gailurrean, NBEko Estatu Kideek [Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda](https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/)¹ onartu zuten, 2030erako pobrezia desagerrarazteko, planeta babesteko eta pertsona guztiei oparotasuna bermatzeko xedez. Akordio hau planeta osoan giza garapen iraunkorraren alde borroka egiteko deia da. Horretarako, 17 helburu eskaintzen ditu, "Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH)", eta, horiek, aldi berean, 169 xede dituzte.

Garapen iraunkorra garapenaren hiru dimentsioak modu orekatuan integratzean datza: soziala, ekonomikoa eta ingurugirokoa. Dimentsio sozialean, beste hainbat alderdiren artean, honako planteamendu hau egiten da: pobrezia desagerraraztea munduak duen erronkarik handienetakoa izateaz gain, garapen iraunkorrerako ezinbesteko baldintza da. Dimentsio ekonomikoa baldintzak zehaztea planteatzen da pertsona guztientzako garapen inklusibo eta iraunkorra, oparotasun partekatua eta lan duina lortzeko. Ingurugiroko dimentsioan, planeta eta bere baliabide naturalak babesteaz gain, Brundtland txostenaren definizioa dago: "oraingo beharrak asetzea etorkizuneko belaunaldien beharrak arriskuan jarri barik".

¹ <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/>



Agenda 2030ek benetan anbizio handikoa eta transformatzailea egiten duten hiru ezaugarri ditu:

- **Integraltasuna:** Garapen iraunkorraren eta 17 GIHen erronkek elkarren artean lotura dute. Hori dela eta, konponbide integratuak behar dituzte, dimentsio guztiak aintzat hartzen dituen ikuspegi batetik. Adibidez, pobrezia desagertzeak (GIH 1) lotura estua du gosearen amaierarekin (GIH 2), genero-berdintasunarekin (GIH 5), lan duinarekin eta ekosistema osasungarriekin (ODS 14 eta 15)
- **Unibertsaltasuna:** Agenda 2030 unibertsala da, hots, pertsona eta herrialde guztientzat, ardura komun baina banatuen printzipioaren menpe. Herrialde guztiek dituzte betebeharrak eta ardurak garapen iraunkorra sustatzeari dagokionez, baina, betiere ere bakoitzaren errealitateak eta ahalmenak aintzat hartuta.
- **Inor atzean ez uztea:** Printzipio honek honako hau adierazten du: gehien behar duten pertsonengana lehenago heltzeko beharra, atzean geratuta daudenengana. Horrez gain, pertsona ahulak ahalduentzeko beharra ere azpimarratzen du, edo herrialde ahul eta atzeratuenei arreta berezia eskaintzeko beharra. Azken finean, ekitate eza eta injustizia soziala Agendaran zentroan jartzen ditu.

Helburu horiek lortzeko, guztiok lagundu behar dugu: gobernuak, sektore pribatuak, gizarte zibilak... eta oso garrantzitsua da gazteek eta hezkuntza komunitateak haiek ezaugaritzea.

3. Ikasgelan zertarako landu gaia?

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) giza eskubideetan hezte eta formakuntza ematea prozesu jarraia da. Horretarako, balore jakin batzuk transmititzea beharrezkoa da, hala nola justizia, tolerantzia, berdintasuna, errespetua eta abar, eta aldi berean bere antitesia diren horiek zalantzan jarritz, hala nola bazterkeria, intolerantzia, bortizkeria eta abar. Balore hauek 2030 Agendaren baitan daude eta huraosatzen duten 17 Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) oinarritu dituzte, bai eta hauen 169 jomugak, datozen 15 urteetan bete beharrekoak. GIH hauek munduko arazo handiei amaiera jarriko dizkieten neurriak hartzeko deialdi unibertsala dira, horien artean txirotasuna, klima aldaketa edota pertsona eta herrialdeen arteko ezberdintasunak, pertsona guztiek bizitza baketsu eta oparo bat gozatu ahal izateko neurriak bermatuko dituzten neurriak hartuz. Garapen iraunkorrak aintzat hartzen dituen dimentsio ezberdinen gaineko hausnarketaren bidez, ikasleek GIH guztiak ezagutzea bilatzen da, bai eta planetako pertsona guztiek jomuga horien lortzearen garrantzia barneratzea ere. Helburu horien lortzea laguntzeko eguneroko errealitateko ekintzak identifikatzea nahi da gainera.





Fitxa 00

Sarrera saioa: Garapen Iraunkorrerako
Agenda 2030 eta GIH-tara gerturatzen

Iraupena: 50-55 minutuko saioa



Jardueraren deskribapena

Saio hau oso garrantzitsua da unitate didaktiko lantzeko sarrera modura erabiltzea.

Saio honetan hainbat kontzeptu landuko dira:

- Munduko arazo orokorrak zer diren, zeintzuk diren eta hauen jatorria
- Garapen iraunkorra kontzeptua
- Nazio Batuen Erakundea (NBE)
- Garapen iraunkorrera agenda 2030 Agenda
- Garapen Iraunkorrerako Helburuak (17 helburuak)

Kontzeptuak modu erakargarri batetan lantzeko asmoz, fitxa honetan, euskarri ezberdinen erabilpena proposatzen da: argazkiak, bideoak, web orriak fitxa honetan egongo dira erabilgarri (informazio iturriak atalean).

Bestalde, kontzeptuen eta edukien barne lana errazteko bi talde dinamika labur proposatzen dira eta fitxako hurrengo ataletan azalduko dira.

Helburu didaktikoak

- Ikasleek munduko arazo orokor garrantzitsuenak ezagutzea eta beraien jatorrien inguruen eztabaida sustatzeko espazioa eta jarduerak sustatzea.
- Ikasleek garapen iraunkorra zer den ulertzea eta garapen tradizionalaren aurrean alternatiba dela barneratzea.
- Ikasleek Garapen Iraunkorraren Agenda 2030-aren jatorria eta Garapen Iraunkorrerako Helburuen ezaugarriak barneratzea eta hauen erabilgarritasunaz jabetzea. Ikasleek indibidualki eta talde moduan, garapen iraunkorraren aurrean daukaten ardura mailaz konturatzea eta "Globalki pentsatu eta tokian ekin" esamoldeaz jabetzea. Modu honetara, pertsona kritikoa-
goak, bidezkoagoak eta solidarioagoak izateko.

Saioaren garapena

Saioa hainbat argazki esanguratsu proiektatzen hasi daiteke. Argazkien helburua munduko arazo orokor larrienak erakustea da eta ikasleek argazki bakoitzaren hausnarketa orokor bat egitea da. Garrantzitsua da argazkiak esanguratsuak izatea eta aukeraketa on bat egitea: gosetea, pobrezia eta gizartearen ezberdintasunak, klima aldaketaren ondorioz sorturiko hondamendiak, gerrateak, kutsadura larria eta emakumearen desabantailazko egoerak nabarmenduz. Inportantea da baita, erakustea ez bakarrik herrialde pobreetan gertatzen diren arazoak erakustea, hemengo arazoak baita (etxebizitza ez daukaten pertsonak, arrazakeria, genero indarkeria...).



Ondoren, 4-5 ikasleetako taldeak osatuko dira eta talde bakoitzak beraien ustez munduko 5 arazo larrienak zeintzuk diren adostu beharko ditu eta baita hauek "konpontzeko" edo hobetzeko hartu daitezkeen neurri batzuk ere. Ondoren taldeko ordezkari batek azalpen bat partekatu beharko du klase osoaren aurrean arazo hauen jatorriak ere aipatuz. Ordenagailuak eta interneta eskuragarri badituzte aukeratu duten arazo orokor bakoitzaren prentsako titular esanguratsu bat bilatu beharko dute eta taldean egingo duten azalpenean ere irakurri beharko dute.

Taldeko hausnarketa izango da garrantzitsuena eta talde osoaren zerrenda bateratu bat gauzatzea. Horretarako arbela erabili daiteke. Jarduera hau egiteko 10-15 minutu edukiko dituzte.

Behin arazo orokorren inguruan eztabaidatu ondoren garapena eta garapen iraunkorra kontzeptuak azaltzea izango da hurrengo pausua. Horretarako, ondorengo bideoa edo bideoak ikusten hasi daiteke. DBH 2.mailako ikasleen kasuan kontzeptua agian aurrez landuta egon daiteke Gizarte Zientziak ikasgaietan:

<https://www.flipandflip.com/blogs/blog/que-es-desarrollo-sostenible>
(Iraupena: 2 minutu, gazteleraz)

<https://www.youtube.com/watch?v=k3fX6ZQ9C3Q>
(Iraupena: 6:4 minuturarte, euskaraz)

Garrantzitsua izango da azpimarratzea garapen iraunkorra, garapena ulertzeko dagoen modu tradizionalaren aurrean alternatiba bat dela mundua eraldatzeko eta etorkizunera begira gure ondorengo belaunaldiari planeta bizigarriago bat uzteko eta biztanle guztiok bizitza duinago bat izateko ezinbestekoa dela. Garapen iraunkorraren inguruko eztabaida edo hausnarketa labur bat egin ondoren, Garapen Iraunkorrerako Agenda 2030 zer den azaltzera pasa daiteke.

Hasteko, labur-labur Nazio Batuen Erakundea (NBE) zer den azaldu daiteke, agenda kokatzeko asmoz:

https://eu.wikipedia.org/wiki/Nazio_Batuen_Erakundea

Ondoren, Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuen inguruko bideoa jarriko da (7 minutuko iraupena) eta modu erakargarri batean Agenda 2030 zer den eta helburu bakoitzaren ezaugarriak azalduko dira. Ikasleei, indibidualki, bideoa ikusten duten bitartean ondorengo galderei erantzutea eskatuko zaie, ondoren erantzunak partekatzeko:

- » Noiz eta nortzuk onartu zuten 2030 Agenda?
- » Noiztik nora gauzatuko da eta zertarako?
- » Zeintzuk dira helburu nagusiak?
- » Zure ustez zein da edo zeintzuk dira helburu garrantzitsuenak? Zergatik?

Agenda 2030 eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak (7 minututako iraupena)



<https://www.youtube.com/watch?v=IT9rJkK6WiU>

Bideoa ikusi ondoren beraientzat ezagunak diren herriko edo gertuko hainbat argazki proiektatu daitezke (adibidez: herriko osasun-zentroa, liburutegia, udaletxea, bidegorria, polikiroldegia, eskola eta abar) eta zein GIH-rekin erlazionatzen duten galdetu. 5 minututan egin daitekeen ariketa da eta lagungarria izan daiteke bertokoarekin loturak egiteko.

Amaitzeko, aipatuko da hurrengo saioetan hurbilagotik landuko direla hainbat helburu, hain zuzen, haien ustez gizadiak 2030erako premiaz konpondu behar dituenak.

Ebaluaketa eta hausnarketa

Talde haundian hausnarketa indibidualak partekatzeko eta ideia garrantzitsuenak borobiltzeko 15 minutu beharko dira. Garrantzitsua izango da, arbelean ikasle baten laguntzarekin, 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorreko Helburuen inguruko ideia-gako hauek irakaslearen laguntzarekin azpimarratzea:

- 2030 Agenda mundu mailako aldaketarako tresna bat da garapen iraunkorra errealitate bihurtzeko.
- Helburu nagusiak hauek dira:
 - » Pobrezia desagerraraztea
 - » Planeta babesteko natura zaintzea
 - » Ekonomia eraldatzea, pertsona guztion oparotasuna bermatzeko
 - » Bakea eta aliantzak bultzatzea.
- Horretarako "inor atzean ez uztea" eta guztion konpromezua, ezinbestekoa da.
- 17 helburuak integratuak eta elkarlotuak daude. Adib.: genero berdintasuna.

Baliabideak eta materialak

- Ordenagailua, proiektorea eta altabozak.
- Internetera konexioa eta talde bakoitzarentzat ordenagailu bat.
- Arbela eta tizak edo koloretako errotulagailuak.
- Munduko eta tokiko arazo larrienak erakusteko argazki esanguratsu batzuk (gerrateak, pobrezia, lan-baldintza ez duinak, lehortekak eta hondamendiak...).
- Agenda 2030 eta 17 GIH-en informazioa lantzeko baliabideak:
 - <https://www.youtube.com/watch?v=IT9rJkK6WiU>
 - http://www.unescoetxea.org/dokumentuak/2030_Agenda_garapen_jasangarrirako.pdf
 - <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/>
 - <http://worldslargestlesson.globalgoals.org/es/>
- Garapen iraunkorra lantzeko baliabideak:
 - http://www.unescoetxea.org/ext/futuros/eu/theme_a/mod02/uncom02t01.htm
 - http://www.bizkaia21.eus/fitxategiak/09/Bizkaia21/artxiboak/PDF/PAES_euskera_SARRERA_23112011160857.pdf?hash=711896ced8efdb559510ea82c8c2f0b9
 - https://www.youtube.com/watch?v=3_J3t9AmgAY (español)
 - <http://www.surferrule.com/desarrollo-sostenible/> (inglés)



Fitxa 01

GIH 1: Pobrezia desagertzea

Iraupena: 55-80 minutu
(saio bat edo saio bat eta erdi)



Jardueraren deskribapena

Saio honetan GIH-a landuko da, "Pobrezia desagerraraztea". Fitxa hau, Unitate Didaktiko honetako 1. sarrera fitxa landu ondoren irakasleak nahi duen momentuan gauzatu dezake.

Esan bezala, ikasturtean zehar, tutoretza orduetan edo eta ikasgaiaren programazio didaktikoarekin gaia ondo txertatzeko aukera dagoenean gauzatu daiteke.

- Saio honetan hainbat kontzeptu landuko dira:
- Garapen Iraunkorreko 1. helburua "Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan" zer den.
- Pobrezia eta pobrezia motak.
- Garapen iraunkorra eta pobreziaren arteko lotura eta beste 17 GIH-ekin dagoen interrelazioa.
- Pobrezia mota ezberdinak, neurtzeko moduak eta indize orokorrak.
- Pobrezia gertu (Euskal Herrian) eta urrun (mundu mailan).

Kontzeptuak modu erakargarri batetan lantzeko asmoz, fitxa honetan, euskarri ezberdinen erabilpena proposatzen da: argazkiak, bideoak, web orriak fitxa honetan egongo dira erabilgarri (baliabideak eta materialak atalean).

Bestalde, kontzeptuen eta edukien barne lana errazteko talde dinamika bat proposatzen da eta fitxako hurrengo ataletan azalduko dira.

Helburu didaktikoak

- Munduko biztanleen arteko ezberdintasunez jabetzea.
- Pobrezia mota ezberdinak ezagutzea, herrialdeko egoera sozioekonomikoaren arabera.
- Egungo eta etorkizuneko belaunaldietan pobreziaren arazoarekiko kontzientzia izatea.
- Pobreziaren egoerari buruzko jarrera kritikoa garatzea ikuspuntu global zein lokal batetik.
- Pobrezia gugandik gertu dagoela ohartzea eta neurritik egindako konponbideak proposatzea, gure inguruan pobrezia murrizteko.

Saioaren garapena

Saio hau hasteko, irakasleak, labur-labur, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuak zer diren gogoratuko du. Ondoren, Garapen Iraunkorrerako 1. helburua "Pobrezia desagerraraztea"-ren azalpena modu erraz eta motibagarri batean gauzatzeko 2 minututako iraupena daukan ondorengo bideoa jarri dezake:

GIH 1 | Pobrezia desagerraraztea



<https://www.youtube.com/watch?v=j0N6JrEGCZk>

Bideoa ikusi ondoren, ikasle bakoitzak bakarka eta gero talde haundian zeintzuk diren helburu honen erronka nagusienak partekatuko dituzte eta hausnarketa bat egingo da guztien artean (10 minutu). Garrantzitsua izango da pobrezia kontzeptua zer den eta zer nolako pobrezia motak dauden mundu mailan hausnartzea.

Aldi berean, beste 17 GIH-ekin (Garapen Iraunkorreko Helburuak) elkar-loturak identifikatzea ere garrantzitsua izango da. Pobrezia diru-sarrera eta baliabide falta baino gehiago da. Pobreziaren manifestazioen artean honakoak daude: gosea, malnutrizioa, etxebizitza duin baten falta eta osasun, hezkuntza eta beste zerbitzu batzuetara sarbidea mugatuta izatea. Genero-diskriminazioa eta gizarte bazterketa ere kontuan hartu behar dira, izan ere, pobreek ez dute parte-hartzerik erabakiak hartzerako orduan, eta bereziki eurei erasaten dien erabakietan. Irakasleak adibide pare bat jarri ditzake eta ondoren ikasleei utziko zaie beraien kabuz, hausnarketa hauek gauzatzea.

Irakasleak hausnarketa dinamizatuko du eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua gidatuko du. Irakaslearentzat lagungarria izan daiteke ondorengo orrialdean dagoen informazioa aurrez ikustea, dinamizazio lana errazteko:

<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/poverty/>

Ondoren mundu-mailako pobrezia egoera larrienen inguruko mapa bat proiektatuko da, Munduko herrialde pobreenak identifikatzeko eta datu esanguratsuenak zeintzuk diren ikusteko. Horretarako irakasleak ondorengo loturak erabili ditzake:

<https://www.indexmundi.com/map/?v=69&l=es>

https://elpais.com/elpais/2018/09/20/planeta_futuro/1537441680_635893.html

Mundu mailako pobreziaren egoera orokorra ikusi eta gero, gure errealitateak gertuago dauden pobrezia egoeren inguruan hausnartuko dugu eta horretarako ondorengo 2 bideo laburrak ikusiko ditugu:

- Pobreziaren inguruko ikerketa Azpeitian (3 minutu):
<https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/ehzuzenean/bideoak/osoa/3103988/bideoa-pobrezia-azpeitian-2015ean/>
- Gasteizko Barakah elkarteko ekimena - Umeentzat gosaria (4 minutu):
<https://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/bideoak/osoa/2233746/bideoa-haurren-pobrezia-euskal-herria/>

Bideoak ikusi ondoren ondorengo galderak egin daitezke hausnarketa lanari ekiteko:

- » Zer dakizu zuk pobreziaren inguruan? Pertsona pobre baten perfila definitu beharko bazenu, zer azpimarratuko zenuke? Uste duzu pertsona pobre bat zarela?
- » Inoiz konturatu zara zure inguruan (herrian/hirian) pobrezia egoeran bizi diren pertsona ugari daudela? Zergatik uste duzu pairatzen dituztela egoera hauek?
- » Pobrezia mota ezberdinak daudela uste duzu?
- » Nolako perfileko pertsonak izan daitezke? (etorkinak, emakumeak, langa-betuak...)

Ondoren 4-5 ikasleek osaturiko taldeak sortuko dira eta irakasleak ondorengo talde-dinamika azalduko du: "Munduan eta gure herrian pobrezia desagerrarazteko dekalogo" edo eta "Albistegia".

Talde bakoitzari pobreziarekin loturiko albiste edo eta artikulu labur bat banatuko zaio. Albiste batzuk errepikatu daitezke baina komenigarria da mundu mailako albisteak eta gertuko (Euskal Herriko edo eta herriko/hiriko) albisteak partekatzea. Fitxa honetan, hainbat albiste eta artikulu esanguratsuren lotura errazten da baina irakasleak, fitxa hau gauzatzea egokitzen zaion momentuan, albiste berriak bilatu daitezke internet-en. Modu honetara, urruneko eta gertuko pobrezia egoeren analisi bat bultzatu nahi da eta ikasleek indibidualki eta talde moduan, garapen iraunkorraren aurrean daukaten ardura mailaz konturatzea. Ariketa honen bitartez, Unitate Didaktiko honen sarreran azaltzen den "Globalki pentsatu eta tokian ekin" esamoldeaz jabetzen jarraitzeko aukera paregabea izan daiteke.

Talde bakoitzak, egokitu zaizkion albisteetan azaltzen diren datu esanguratsuenen

hausnarketa labur bat egin beharko du eta pobrezia sorrarazten dituzten 2-3 faktore identifikatu beharko dituzte eta hauek desagerrarazteko neurriak eta konponbideak pentsatu eta eztabaidatu beharko dituzte eta hala nola, 2030 Agendak definitzen dituen 17 GIH-en artean, zein helbururekin lotu ditzaketen proposaturiko neurriak (15 minutu).

ALBISTE ETA ARTIKULUEN PROPOSAMENA:

- Hamarka milioi haur pobrezia egoeran bizi dira munduko herrialde aberatsenetan:
<https://www.unicef.es/eus/noticia/hamarka-milioi-haur-pobrezia-egoeran-bizi-dir-munduko-herrialde-aberatsenetan>
- 18 urtetik beherakoen ia %20a pobrezia edo bazterketa arriskuan bizi da Euskal Herrian:
<https://gaindegia.eus/eu/pobrezia-eta-baztertze-arriskua-eh>
- Invertir en infancia:
https://elpais.com/tag/pobreza_infantil/
- Si abres la mirada verás la pobreza:
<https://www.savethechildren.es/actualidad/si-abres-la-mirada-veras-la-pobreza>

Talde bakoitzeko ordezkari batek, talde handiaren aurrean, albiste/artikulu horretako testuingurua azaldu eta gero testuinguru horretan pobrezia sorrarazten dituzten 2-3 faktore nagusienak aipatu, eta hau desagertarazteko adostu dituzten 3 neurriak partekatu beharko ditu. Modu honetara, irakaslea talde bakoitzaren proposamenak joango da idazten arbelean eta ondoren guztien artean "Pobrezia desagertarazteko dekalogo" osatuko dute.

Ebaluaketa eta hausnarketa

Talde bakoitzak albiste/artikulu bakoitzetik pobrezia sorrarazten duten 2-3 faktore eta hauekin amaitzeko 3 neurri azaldu beharko dituzte talde haundiaren aurrean. Beraz, irakasleak talde-lanaren ebaluaketa elementu modura erabili dezake, talde bakoitzaren hausnarketa maila eta kalitatea.

Baliabideak eta materialak

- Proiektorea eta altabozak
- Arbela
- Taldeka lan egiteko ordenagailuak eta interneta
- Bideoa GIH 1 (2 minutu):
<https://www.youtube.com/watch?v=jON6JrEGCZk>
- Bideoa – Pobreziaren inguruko ikerketa Azpeitian (3 minutu):
<https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/ehzuzenean/bideoak/oso/3103988/bideoa-pobrezia-azpeitian-2015ean/>
- Bideoa- Gasteizko Barakah elkarteko ekimena- Umeentzat gosaria (4 minutu):
<https://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/bideoak/oso/2233746/bideoa-haurren-pobrezia-euskal-herria/>

Informazio-iturriak irakaslearentzat:

- Pobreziaren amaiera (datuak eta informazioa)
- <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/poverty/>
- Herrialdeen mapa konparatiboa > Pobrezia mailaren azpitik dagoen biztanleria - Mundua
<https://www.indexmundi.com/map/?v=69&l=es>
- NBERen munduko pobreziaren mapa
https://elpais.com/elpais/2018/09/20/planeta_futuro/1537441680_635893.html
- Taldeko ariketa gauzatzeko albiste eta artikulu proposamena:
<https://www.unicef.es/eus/noticia/hamarka-miloi-haur-pobrezia-egoeran-bizi-dira-munduko-herrialde-aberatsenetan>
<https://gaindegia.eus/eu/pobrezia-eta-baztertze-arriskua-eh>
https://elpais.com/tag/pobreza_infantil/
<https://www.savethechildren.es/actualidad/si-abres-la-mirada-veras-la-pobreza?>
https://elpais.com/elpais/2017/02/24/planeta_futuro/1487953054_545195.html



Fitxa 02

GIH 02: Goserik ez izatea

50-80 minutu
(saioa bat edo saio bat eta erdi)



Jardueraren deskribapena

Saio honetan 2. GIH-a landuko da: "Goserik ez izatea". Fitxa hau, Unitate Didaktiko honetako sarrera fitxa landu ondoren irakasleak nahi duen momentuan gauzatu dezake. Hala ere, aurretik 1. fitxa ("Pobrezia desagertzea") lantzea gomendatzen da. Esan bezala, ikasturtean zehar, tutoretza orduetan edo eta ikasgaiaren programazio didaktikoarekin gaia ondo txertatzeko aukera dagoenean gauzatu daiteke.

Saio honetan hainbat kontzeptu landuko dira:

- Garapen Iraunkorreko 2. Helburua zer den ("Goserik ez izatea").
- Garapen Iraunkorraren eta "Goserik ez izatea" helburuaren arteko lotura, eta gainerako GIH-ekin duen lotura.
- Tokiko eta garaiko kontsumoa.
- Elikadura osasungarri, jasangarri eta ekologikoaren ezaugarriak.

Kontzeptuak modu erakargarri batean lantzeko asmoz, fitxa honetan euskarri ezberdinak erabiltzea proposatzen da: bideoak, web orriak eta abar egongo dira erabilgarri, baliabideak eta materialak atalean.

Bestalde, kontzeptuen eta edukien barne lana errazteko talde dinamika bat proposatzen da, eta fitxako hurrengo ataletan azalduko da.

Helburu didaktikoak

- Ikasleak honako hauez kontzientziaztea: elikadura eskasa edo/eta osasungarria ez den elikadura, bai hegoaldeko bai iparraldeko herrialdeetan (malnutrizioa eta gehiegizko elikadura).
- Konturatzea zer lotura duten elikagaien produkzio/banaketa moduak eta munduan dagoen goseak.
- Elikadura- eta kontsumo-ohitura arduratsua sustatzea.
- Gure eguneroko ohiturek beste pertsona batzuen bizitza nola hobetu dezaketen pentsatzea.

Saioaren garapena

Saio hau hasteko, irakasleak, labur-labur, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuak zer diren gogoratuko ditu. Ondoren, Garapen Iraunkorrerako 2. helburua modu erraz eta motibagarrian azaltzeko, 2 minutuko iraupena daukan ondorengo bideoa jar dezake:

GIH 02 | Goseriek ez izatea



<https://www.youtube.com/watch?v=yhrIL7JDHRo>

Behin bideoa ikusi ondoren, ikasle bakoitzak bakarka eta gero talde handian partekatuko dute zeintzuk diren helburu honen erronka nagusiak, eta hausnarketa bat egingo da guztien artean (15 minutu). Hausnarketa hori bideratzeko, honako galderak egin daitezke:

- » Zeintzuk dira munduan gosea eragiten duten arrazoi nagusiak?
- » Nolako elikadura-ohiturek eragiten dute obesitatea, eta zerk malnutrizioa? Bietako zein da osasungarriagoa?
- » Zure ustez, zer ondorio izan ditzake elikadura eskasak edo urriegiak haurren bizitzan?
- » Zer ondorio izan ditzake klima-aldaketak elikagaien ekoizpenean?
- » Zer faktorek eragiten dute elikagaien ekoizpenerako erabiltzen diren lur-zoruen degradazioa?

Ondoren, irakasleak 4-5 lagunekoa taldetan jarriko dira, eta 25-30 minutu izango dituzte honako gaiak hausnartzeko: kontsumitzen ditugun elikagaien jatorria eta horrek munduko gosearekin duen lotura. Horretarako 2 minutuko "Alimentos kilométricos" bideoa ikusiko dute, eta eskatuko diegu arreta jartzeko elikagai bakoitzak egiten duen kilometro kopuruan:

https://www.youtube.com/watch?time_continue=94&v=5kpYPWG3OKs

Bideoa ikusi ondoren, talde bakoitzari 3 artikulua labur emango dizkiegu. Horiek irakurri eta lortutako informazioarekin ondorengo galderei erantzun beharko diete:

- » Zer arazo eragiten ditu hain urrunetik datozen elikagaiak kontsumitzeak? Nori egiten die kalterik handiena elikagai horiek?
- » Zer eragin du ingurumenean haragi gehiegi kontsumitzeak?
- » Azaldu zer kalte eragin ditzakeen "abeltzaintza industrialak" herrialde pobreenetako elikaduran.
- » Zergatik da garrantzitsua "tokiko eta garaiko" elikadura sustatzea?
- » Nola alda ditzakegu gure elikadura-ohiturak "Goserik ez izatea" helburua betetze aldera?

Hona ikasleei banatzeko artikulua-proposamenak:

<https://www.cambio16.com/la-alimentacion-origen/>

<https://www.tierra.org/que-tiene-que-ver-reducir-el-consumo-de-carne-con-el-medio-ambiente/>

<https://www.tierra.org/agroecologia-un-modelo-agroalimentario-justo-y-saludable/>

Talde bakoitzaren erantzunak partekatu ondoren zerrenda kolektibo bat egingo dute eta zerrenda horretan gure elikadura aldatzeko proposamenak egongo dira "Goserik ez izatea" helburua lortzeko.

Saioa amaitzeko "Dieta osasungarri, jasangarri eta ekologiko" baten talde-definizio bat eraikitzea proposatuko dugu (10-15 minutu). Horretarako ikasgela 3 taldetan banatuko dugu, talde bakoitzak ezaugarri batean arreta jartzeko:

- Pertsonentzako osasungarria.
- Planetarentzat jasangarria.
- Elikagaien ekoizpen ekologikoa.

Beharrezkoa bada, irakasleak talde bakoitza bideratuko du, artikulua honetan dagoen informazioa oinarri hartuta:

<http://www.alimentacion.enfasis.com/articulos/80846-dieta-saludable-sostenible-y-ecologica->

Talde-definizioa arbelean edo gero ikasgelan jarriko duten kartoi mehe batean idatzi dezakete, marrazki batekin batera.

Ebaluaketa eta hausnarketa

Talde bakoitzak hartzen ditugun elikagaien ekoizpenaren eta jatorriaren inguruan egindako hausnarketa azalduko du. Hausnarketaren maila eta kalitatea erabil daiteke ebaluazio elementu gisa.

Baliabideak eta materialak

- Proiektagailua eta bozgorailuak
- Arbela
- Ordenagailuak eta Internet, talde-lanearako
- Kartoi mehea (aukerazkoa, dieta osasungarri, jasangarri eta ekologiko baten definiziorako)
- Garapen Iraunkorrerako 2. Helburuari buruzko bideoa (2 minutu):
<https://www.youtube.com/watch?v=yhrIL7JDHRo>
- "Alimentos kilométricos" bideoa (2 minutu):
<https://www.youtube.com/watch?v=yhrIL7JDHRo>
- Talde-ariketa egiteko albisteen eta artikuluen proposamenak:
<https://www.cambio16.com/la-alimentacion-origen/>
<https://www.tierra.org/que-tiene-que-ver-reducir-el-consumo-de-carne-con-el-medio-ambiente/>
<https://www.tierra.org/agroecologia-un-modelo-agroalimentario-justo-y-saludable/>
- Garapen Iraunkorrerako 2. Helburuaren inguruko informazio gehiago lortzeko web-orria:
<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/hunger>



Fitxa 03

GIH 03: Osasun eta ongizatea

55-80 minutu
(saio bat edo saio bat eta erdi)



Jardueraren deskribapena

Saio honetan 3. GIH-a landuko da: "Osasun eta ongizatea". Fitxa hau, Unitate Didaktiko honetako sarrera fitxa landu ondoren irakasleak nahi duen momentuan gauzatu dezake. Esan bezala, ikasturtean zehar, tutoretza orduetan edo eta ikasgaiaren programazio didaktikoarekin gaia ondo txertatzeko aukera dagoenean gauzatu daiteke.

Saio honetan hainbat kontzeptu landuko dira:

- Garapen Iraunkorreko 3. Helburua zer den ("Osasun eta ongizatea").
- Garapen Iraunkorraren eta "Osasun eta ongizatea" helburuaren arteko lotura, eta gainerako GIH-ekin duen lotura.
- Osasun-estaldura unibertsala.
- Osasungintza publikoa eta pribatua.

Kontzeptuak modu erakargarri batean lantzeko asmoz, fitxa honetan euskarri ezberdinen erabilpena proposatzen da: bideoak, web orriak eta abar egongo dira erabilgarri, baliabideak eta materialak atalean.

Bestalde, kontzeptuen eta edukien barne lana errazteko bi talde dinamika proposatzen dira, eta fitxako hurrengo ataletan azalduko dira.

Helburu didaktikoak

- Ikasleak honako hauez kontzientziaztea: herrialde pobreen eta aberatsen arteko desberdintasunak osasun-zerbitzuen eskuragarritasunari dagozkionez, eta horrek pertsonen ongizatean duen eragina.
- Osasun-estaldura unibertsalaren garrantziari buruz hausnartzea.
- Osasungintza eredu publikoaren eta pribatuaren arteko desberdintasunei buruz hausnartzea.
- Besteen ongizate falta eta sufrimenduarekin enpatiko izatera bultzatzea.

Saioaren garapena

Saioaren hasieran, irakasleak laburki Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako 17 helburuak berrikusiko ditu. Jarraian, Garapen Jasangarrirako 3. Helburua "Osasun eta ongizatea" era erraz eta motibagarri batean lantzeko, 2 minutuko iraupena duen bideo hau jarri dezake:

GIH 03 | Osasun eta ongizatea



<https://www.youtube.com/watch?v=yhrIL7JDHRo>

Bideoa ikusi ondoren, helburu honen erronka nagusiak zein diren hausnartuko du ikasle bakoitzak bakarrik, eta gero, ikasleek hausnarketa egingo dute denek batera (10 minutu). Irakasleak hausnarketa dinamizatuko du eta irakaskuntza-ikasketa prozesua zuzenduko du.

Ondoren ikasgela 2 taldetan zatituko da eztabaida bat izateko role playing delako teknikaren bidez, "Osasun Publikoaren" eta "Osasun Pribatuaren" inguruan (15 minutu). Talde bakoitzak jarrera bat defendatuko du, ausaz banatuko dira, eta 5 minutu izango dituzte bi argudio mota prestatzeko eztabaida hasi baino lehenago:

- » Zein dira defendatzea tokatu zaien osasun-motaren abantailak?
- » Zein dira beste taldeak defendatzen duen osasun-motaren desabantailak?

Argudioak eraikitzerako orduan kontuan hartu daitezkeen zenbait alderdi hauek dira: teknologia eta instalazioak, itxarote-zerrendak, prezioa (eta nork ordaintzen duen), arretaren kalitatea, etab.

Eztabaidan zehar, dinamizatzen duen pertsonak parte-hartze txandak emango dizkio talde bakoitzari, beste taldeak erabili duen argudioari erantzuna emateko. Bi taldeen argudioak bukatzen direnean, "osasun-estaldura unibertsalaren" inguruko ondorengo bideoa ikustea iradokitzen dugu (minutu 1 eta 30 segundo):

<https://www.youtube.com/watch?v=YbJue1Mi3x0>

Bideoa ikusi ondoren, galdera hau egingo die bi taldeei:

- » Zein osasun-eredurekin bermatu daiteke kalitatezko osasun zerbitzu batera sarbidea pertsona guztientzat, diru-sarrera maila kontuan izan gabe? Zergatik?

"Bizitza onaren edo txarraren istorioak" izeneko hurrengo dinamikarako (25-35 minutu), ikasgela 6 taldetan banatuko da. Talde bakoitzak istorio txiki bat idatzi beharko du, osasun-arazoak dituen pertsona bati buruz. Hiru taldek "bizitza txarrari" buruzko istorioak idatziko dituzte, osasun-estaldura unibertsalik ez dagoen herrialde batean kokatua, sendagaiak eta mediku-zerbitzuak eskuratzeko zailtasunekin. Beste hiru taldeek berdina egingo dute "bizitza onari" buruzko istorioekin, osasun-estaldura unibertsala eta kalitatezko zerbitzuak dituen herrialde batean kokatuak. Hiru talde horietako bakoitzean istorioko protagonistak adin-tarte bat izango du bizi-ziklo osoa betetzeko: haurtzaroa, helduaroa eta zahartzaroa.

Istorioak sarrera bat izango du non protagonistaren osasun-arazoa aurkezten den, korapiloa non mediku-zerbitzuetara joko duen eta amaiera bat.

Haurtzaroaren bi istorioetarako (bizitza "ona" eta "txarra") egoera hau proposatzen da: pneumonia sintomak dituen 5 urteko neskatila. Ikasleek informazioa bilatu dezakete gaixotasunaren inguruan (sintomak, arrisku-faktoreak, tratamendua eta prebentzioa) web-orri honetan:

<https://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/pneumonia>

Helduaroko bi istorioetarako (bizitza "ona" eta "txarra") ondorengo egoera proposatzen dugu: hiesa duen eta haurdun dagoen emakume bat. Ikasleek web-orri honetan aurki dezakete informazioa:

<https://www.who.int/features/qa/71/es/>

Zahartzaroko bi istorioetarako (bizitza "ona" eta "txarra") ondorengo egoera proposatzen dugu: kataratak dituela-eta ikusmen lausoa duen agure bat. Ikasleek ikusmen urriaren jatorria eta hori tratatzeko estrategiak web-orri honetan ikus ditzakete:

<https://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/blindness-and-visual-impairment>

Ikasleek 10-15 minutu izango dituzte istorio txikiak idazteko. Denboraren arabera, talde bakoitzak istorioa irakurri edo antzeztu egingo dute gainerako ikaskideen aurrean.

Istorio guztiak partekatu ondoren, irakasleak ikasleei eskatuko die istorio bakoitza bizitza "ona" edo "txarra" denaren zergatiak zerrendatzeko.

Ebaluaketa eta hausnarketa

Eztabaidan zehar, irakasleak ikasle bakoitzaren argudioen kalitatea edo besteen argudioei emandako erantzunak erabil ditzake ebaluazio elementu gisa. Bizitza “onaren” eta “txarraren” istorioen aurkezpenetan, irakasleak osasun zerbitzuei dagokien elementu narratiboen sormena eta sinesgarritasuna hartu ditzake ebaluazio elementu gisa.

Baliabideak eta materialak


- Proiektagailua eta bozgorailuak
- Arbela
- Ordenagailuak eta Internet, talde-lanerako
- Garapen Iraunkorrerako 3. Helburuari buruzko bideoa (2 minutu):
<https://www.youtube.com/watch?v=yhrIL7JDHRo>
- “Osasun estaldura unibertsala” bideoa (minutu 1 eta 30 segundo):
<https://www.youtube.com/watch?v=YbJue1Mi3x0>
- Bizitza-istorioak prestatzeko proposatutako artikuluak:
<https://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/pneumonia>
<https://www.who.int/features/qa/71/es/>
<https://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/blindness-and-visual-impairment>
- Garapen Iraunkorreko 3. Helburuaren inguruko informazio gehiago eskuratzeko web-orria:
<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/health/>



Fitxa 04

GIH 4: Kalitate oneko hezkuntza

Iraupena: 55-80 minutu
(saio bat edo saio bat eta erdi)



Jardueraren deskribapena

Saio honetan 4. GIH-a landuko da "Kalitate oneko hezkuntza". Fitxa hau, Unitate Didaktiko honetako sarrera fitxa landu ondoren irakasleak nahi duen momentuan gauzatu dezake. Esan bezala, ikasturtean zehar, tutoretza orduetan edo eta ikasgaiaren programazio didaktikoarekin gaia ondo txertatzeko aukera dagoenean gauzatu daiteke.

Saio honetan hainbat kontzeptu landuko dira:

Garapen Iraunkorreko 4. Helburua zer den eta kalitatezko hezkuntza kontzeptua: "Hezkuntza barneratzailea, bidezkoa eta kalitatezkoa bermatzea, eta pertsona guztientzako bizi osorako ikaskuntza-aukerak sustatzea".

- Garapen iraunkorra eta kalitatezko hezkuntza izateko eskubidearen arteko lotura.
- Hezkuntza unibertsala eta bere erronka nagusiak zeintzuk diren.

Kontzeptuak modu erakargarri batetan lantzeko asmoz, fitxa honetan, euskarri ezberdinen erabilpena proposatzen da: argazkiak, bideoak, web orriak fitxa honetan egongo dira erabilgarri (baliabideak eta materialak atalean).

Bestalde, kontzeptuen eta edukien barne lana errazteko talde dinamika bat proposatzen da eta fitxako hurrengo ataletan azalduko dira.

Helburu didaktikoak

- Ikasleak honako hauez kontzientziaztea: umeen eskolatze faltaren arrazoiez eta horien garrantziaz.
- Hezkuntzako aukera eza txirotasunarekin eta desparekotasunarekin lotzea.
- Kalitatezko hezkuntza jasotzeko aukera desparekotasunak berdintzeko faktore gisa ulertzea.

Saioaren garapena

Saio hau hasteko, irakasleak, labur-labur, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuak zer diren gogoratuko du. Ondoren, Garapen Iraunkorrerako 4. Helburua "Kalitatezko hezkuntza"-ren azalpena modu erraz eta motibagarri batean gauzatzeko 2 minututako iraupena daukan ondorengo bideoa jarri dezake:

GIH 4 | Kalitate oneko hezkuntza



<https://youtu.be/h9-iedVkdeA>

Behin bideoa ikusi ondoren, ikasle bakoitzak bakarka eta gero talde handian zeintzuk diren helburu honen erronka nagusienak partekatuko dituzte eta hausnarketa bat egingo da guztien artean (10 minutu). Irakasleak hausnarketa dinamizatuko du eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua gidatuko du.

Ondoren 4-5 ikasleez osaturiko taldeak sortuko dira irakasleak ondorengo talde-lana azalduko du: "Bere azalean jarri! Edo ¡Ponte en su piel!"¹

Denbora izanez gero, talde-lana gauzatzen hasi aurretik, sarrera moduan, ondorengo bideoa erabili daiteke (10 minutuko iraupena dauka).

Pobreza infantil, romper con el ciclo de la pobreza:

<https://www.youtube.com/watch?v=QY-AByOiFcs>

(Iraupena 7 minutu)

Bideoa ikusi ondoren ondorengo galderak egin daitezke hausnarketa lanari ekiteko:

- » Noizbait hausnartu duzu kontu hauen inguruan?
- » Jaio aurretik galdetu zizuten ea non edo zein familiatan jaio nahi zenuen?

¹ Jarduera hau AECID-en "El desafío de los ODS en secundaria: Programa docente para el desarrollo" publikaziotik moldatu da. <https://goo.gl/3MqMdi>

Bideoan ikusi duzun umeetako bat izan zintezke. Jarri haien lekuan momentu batez.

Talde-lanaren bitartez lortuko diren edukiak eta hausnarketak aberasteko asmoz, taldeek 3 aukera izango dituzte talde-hausnarketa gauzatzeko: A, B eta D aukera. Irakasleak, talde kopuruen arabera, aukera ezberdinak banatuko ditu. Talde bakoitzak Interneteko hainbat web orriren laguntzarekin ondorengo informazioa bildu eta laburtu beharko du, ondoren klaseko beste kideen aurrean aurkezpen bat egiteko. Talde-lanaren helburuak hobeto bideratzeko ikasleei informazio-iturri egoki batzuk erraztuko zaizkie:

A AUKERA:

Zer da hezkuntza kalitatekoa, inklusiboa eta bidezkoa? Hezkuntza mota horrekin lagunduko litzateke pobrezia eta gosea munduan desagerrarazten?

Zergatik? Antolatu zure informazioa gainontzekoei azaldu ahal izateko bateratze-lan batean.

B AUKERA:

Hautatu bi herrialde, bata europarra eta bestea afrikarra, eta konparatu:

- Eskolatze-zifrak.
- Derrigorrez eskolaratzeko adina.
- Eskolara ez doazen umeen kopurua.
- Eskola-uzte tasa.
- Aurkeztu informazioa eta grafikoetatik atera dituzun ondorio nagusiak.

D AUKERA:

- Hurbileko errealitateari buruz (ez bakarrik afrikarrarekin alderatuta): zein puntutaraingo daukagu hezkuntza inklusiboa, bidezkoa eta kalitatekoa? Pertsona guztiek (hemen, Euskal Herrian) dituzte antzeko hezkuntza-aukerak?
- Hurbileko errealitateari buruz, zuen zentroan bertan: zein dira zure zentroan gehien gustatzen zaizkizun hiru gauzak? Eta gutxien gustatzen zaizkizunak? Zer egingo zenuke hobetzeko?

Ebaluaketa eta hausnarketa

Talde bakoitzak bildutako informazioarekin 5 minututako aurkezpen bat prestatu behar-ko du eta bigarren saioan gauzatu beharko dute ikaskide guztientzat. Irakasleak ebaluaketa modura erabili dezake aurkezpena bera (landutako edukiak eta egindako hausnarketa batez ere). 2. saioa bukatzeko, aurkezpenetan landutako edukien hausnarketa orokor bat egingo da eta talde bakoitzak nola funtzionatu duen ikusteko, autoebaluaketa edo ko-ebaluaketarako tarte bat utziko zaio talde bakoitzari.

Baliabideak eta materialak

- Proiektorea eta altabozak
- Arbela
- Taldeka lan egiteko ordenagailuak eta interneta
- Bideoa GIH 4 (2 minutu):
 - Cast - <https://youtu.be/Axrfh2cae7E>
 - Eusk - <https://youtu.be/h9-iedVkdeA>
- Pobreza infantil, romper con el ciclo de la pobreza (10 min):
<https://www.youtube.com/watch?v=QY-AByOiFcs>
- Informazio-iturriak ikasleek datuak bilatzeko:
 - » Munduko hezkuntzaren jarraipen-txostena:
<http://es.unesco.org/gem-report/>
<http://unesdoc.unesco.org/images/0024/002457/245745s.pdf>
 - » Nesken hezkuntza:
<http://es.unesco.org/themes/educacion-ninas-y-mujeres>
 - » Haurren lana:
<http://www.oit.org/global/topics/child-labour/lang--es/index.htm>
 - » Eskolatze gabe:
<http://www.unesco.org/new/en/media-services/in-focus-articles/unesco-noprogress-in-reducing-global-number-of-children-out-of-school/>
<https://www.youtube.com/watch?v=htJIZ3GpkWA>

♀♂ Fitxa 05

GIH 5: Genero berdintasuna

Iraupena: 50-55 minutuko saioa bat



Saioaren garapena

Saio honetan 5.GIH-a landuko da "Genero berdintasuna". Fitxa hau, Unitate Didaktiko honetako sarrera fitxa landu ondoren irakasleak nahi duen momentuan gauzatu dezake. Esan bezala, ikasturtean zehar, tutoretza orduetan edo eta ikasgaiaren programazio didaktikoarekin gaia ondo txertatzeko aukera dagoenean gauzatu daiteke.

Saio honetan hainbat kontzeptu landuko dira:

- Garapen Iraunkorreko 5. Helburua zer den eta genero berdintasuna kontzeptua.
- Garapen iraunkorra eta genero berdintasunaren arteko lotura.
- Desberdintasunaren jatorria: nola bilakatzen garen emakume eta gizon eta zer diren genero estereotipoak.
- Emakumeak pairatzen dituzten indarkeriaren jatorriari buruz hausnartzea.

Kontzeptuak modu erakargarri batetan lantzeko asmoz, fitxa honetan, euskarri ezberdinen erabilpena proposatzen da: argazkiak, bideoak, web orriak fitxa honetan egongo dira erabilgarri (baliabideak eta materialak atalean).

Helburu didaktikoak

- Ikasleek genero desberdintasunen arrazoiak ulertzeko eta dituzten ondorioak ezagutzeko espazioak sortzea, parte-hartze aktiboaren eta ikuspegien eta bizi esperientzien trukearen bidez.
- Ikasleen hausnarketa bultzatzea, gizarte errealitatea kritikoki aztertzeak aukera izan dezaten eta jatorri, sexu-identitate eta genero desberdinetako pertsonen errealitateen aurreiritziei aurre egin diezaieten.
- Genero rol tradizionalei aurre egitera bideratutako metodologiak eta dinamikak txertatzea.
- Emakumeek pairatzen dituzten indarkerien jatorriari buruz hausnartzea.
- Emakumeen aurkako indarkeria ez dela indarkeria fisikoa soilik ulertzea.
- Fisikoak ez diren indarkeria matxisten hainbat adierazpen identifikatzen ikastea.

Saioaren garapena

Saio hau hasteko, irakasleak, labur-labur, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuak zer diren gogoratuko ditu. Ondoren, Garapen Iraunkorrerako 5. helburua "Genero berdintasuna"-ren azalpena modu erraz eta motibagarri baten gauzatzeko 2 minututako iraupena daukan ondorengo bideoa jarri dezake:

GIH 5 | Genero-berdintasuna



<https://youtu.be/AP8zqHHWrxA>

Behin bideoa ikusi ondoren, ikasle bakoitzak bakarka eta gero talde haundian zeintzuk diren helburu honen erronka nagusienak partekatuko dituzte eta hausnarketa bat egingo da guztien artean (10 minutu). Irakasleak hausnarketa dinamizatuko du eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua gidatuko du.

Ondoren 4-5 ikasleez osaturiko taldeak sortuko dira irakasleak ondorengo talde-dinamika azalduko du: "Diferenteak baina ez ezberdinak"¹ (15 minututako iraupena).

Garrantzitsua da aipatzea, talde-dinamika honetan helburu ezberdinak definituko ditugula ikasgelako mutilentzat eta neskentzat eta talde osoarentzat:

- **Mutilentzako helburuak:**
 - » Emakumeek eguneroko bizitzan jasaten duten desberdintasuna bizi izatea eta haiekin enpatia izatea.
- **Neskentzako helburuak:**
 - » Mendeko rola neurtzea —emakumea izateagatik— eta horren aurka borrokatzea.

¹ Talde-dinamika hau eta hurrengo "Feminitate eta maskulinitate alternatibo askotariko eta berdinezaleak eraikitzen" UNESCO Etxearen gida didaktikotik atera da:

http://www.unescoetxea.org/dokumentuak/gida_fem.pdf

- **Neskentzako eta mutilentzako helburuak:**
 - » Gizarteak mutilen eta nesken arteko diferentziaziaz abiatuta desberdintasuna eragiten duela bistaratzeko.
 - » Mutilen eta nesken arteko eguneroko desberdintasunak desnaturalizatzea.

Talde-dinamikarekin hasteko ondorengo bideoa jarriko da guztien artean ikusteko:

"Zer esan nahi du gauzak neska baten moduan egiteak?":
<https://www.youtube.com/watch?v=s82iF2ew-yk>
 (3 minututako iraupena)

Eta bideoa ikusi eta gero ondorengo galderak erantzungo dituzte, lehenengo bakarka eta gero talde mailan eztabaidatuko dira:

- » Zer iruditu zaizue bideoa? Zer iruditzen zaizue gertatutakoa?
- » Bidegabea iruditzen al zaizue? Zergatik uste duzue gertatzen dela?
- » Inoiz gertatu al zaizue (neskei) edo egin al duzue inoiz (mutilek)?
- » Alderantziz izatea imajinatzen al duzue? Egingo al zenukete berriz?

Ondoren, "Aulkien dinamika vs. Agintea" aurkeztuko da (gutxi gorabehera 15-20 minutuko iraupena).

Lehenik, gelako hainbat aulki biribilean jartzen dira eta neska guztiei eskatzen zaie aulkira igo daitezela eta mutilei zutik gera daitezela. Kokatzeko modu horrek agintaren posizioak irudikatuko ditu (fisikoa eta psikikoa), hain zuzen ere, gizonak izan ohi duten posizioa, indarkeria matxista ez fisikoaren erakusgarri. Eskatuko zaie isilik egoteko eta saia daitezela euren gorputz-adierazpenaren bidez egoera horretan zer sentitzen duten transmititzen. Hainbat minutu igaro ostean, neskek zein mutilek bizi izan dituzten sentimenduak bateratuko dituzte. Lehenik, neskei eskatuko zaie parteka dezatela zer sentitu duten nagusitasun-posizio altuago batean egonda, eta mutilei ere hausnarketa bera egiteko eskatuko zaie.

Normalean, nesken kasuan, boteretsu sentitzearen aurkako erresistentzia ager daiteke, eta baliteke bizitako sentimenduak agintetik urrun geratzea. Halaber, oso sentimendu kontrajarriak ager daitezke, eta garrantzitsua izango da horiek modu egokian aztertzea.

Ondoren, ariketa bera egingo da kontrako posizioarekin, hau da, mutilak aulkietara igo eta neskak zutik egongo dira hainbat minututan. Horren ostean, hausnarketak partekatuko dira taldean. Dinamika behar bezala badoa, kokatzeko beste modu batzuk konbina daitezke aulkien bidez. Adibidez, neska bat igo daiteke aulkira eta mutil guztiak zutik bere azpialdean, eta alderantziz. Dinamika amaitzean, azterketa -eta hausnarketa- ariketa egingo da sakonki, taldeka zein banaka. Hainbat galdera egin daitezke banaka erantzuteko eta, jarraian, batera egingo dira:

- » Nola sentitu zara dinamika bakoitzean? Sentsazio desberdinak sentitu dituzu? Zergatik?
- » Inoiz sentitu al zara horrela zure eguneroko bizitzan? Saia zaitez zure eguneroko bizitzako egoera batzuk aztertzen.
- » Bururatzen al zaizu ezer egoera horiek aldatzeko?

Jarduera horren bidez, zenbait elementu azter daitezke: enpatia; gizonen eta emakumeen arteko aginte-harremanak sistema heteropatriarkalean oinarrituak, indarkeria matxista ez fisikoaren adierazgarri; eta, nagusiki emozioen zein jokabide sozialaren kudeaketarekin lotutako genero-estereotipoen azterketa. Jarrera eta jokabideak aldatzeko lehen urratsa enpatia lantzea da, eta ariketa honek helburu hori du.

Ebaluaketa eta hausnarketa

Talde bakoitzak bildutako informazioarekin 5 minututako aurkezpen bat prestatu beharko du eta bigarren saioan gauzatu beharko dute ikaskide guztientzat. Irakasleak ebaluaketa modura erabili dezake aurkezpena bera (landutako edukiak eta egindako hausnarketa batez ere). 2. saioa bukatzeko, aurkezpenetan landutako edukien hausnarketa orokor bat egingo da eta talde bakoitzak nola funtzionatu duen ikusteko, autoebaluaketa edo ko-ebaluaketarako tarte bat utziko zaio talde bakoitzari.

Baliabideak eta materialak

- Proiektorea eta altabozak
- Arbela
- Taldeka lan egiteko ordenagailu bat eta interneta
- Datu esanguratsuak bilatzeko lotura:
<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/gender-equality/>
- 5.GIH-aren bideoaren lotura:
 Cast - <https://youtu.be/FUbA0VTykRk>
 Eusk - <https://youtu.be/FUbA0VTykRk>
- Gida didaktikoa: Feminitate eta maskulinitate alternatibo askotariko eta berdinezaleak eraikitzen:
 Eusk - http://www.unescoetxea.org/dokumentuak/gida_fem.pdf
 Cast - http://www.unescoetxea.org/dokumentuak/guia_fem.pdf



Fitxa 06

GIH 6: Edateko ura eta saneamendua

Iraupena: 55-80 minutu
(saio bat edo saio bat eta erdi)



Saioaren garapena

Saio honetan 6. GIH-a landuko da, "Edateko ura eta saneamendua". Fitxa hau, Unitate Didaktiko honetako sarrera fitxa landu ondoren irakasleak nahi duen momentuan gauzatu dezake. Esan bezala, ikasturtean zehar, tutoretza orduetan edo eta ikasgaiaren programazio didaktikoarekin gaia ondo txertatzeko aukera dagoenean gauzatu daiteke.

Saio honetan hainbat kontzeptu landuko dira:

- Garapen Iraunkorreko 6. Helburua "Uraren erabilgarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea" zer den.
- Garapen iraunkorra eta uraren kudeaketa egokia eta saneamendu beharraren arteko lotura eta beste 17 GIH-ekin dagoen interrelazioa.
- Datuen konparaketa: estres hidrikoa, baliabide hidrikoen banaketa, ur-hornidurarako zerbitzua, saneamendu-zerbitzua, lehortea eta kutsadura.

Kontzeptuak modu erakargarri batetan lantzeko asmoz, fitxa honetan, euskarri ezberdinen erabilpena proposatzen da. Argazkiak, bideoak, web orriak fitxa honetan egongo dira erabilgarri (baliabideak eta materialak atalean).

Bestalde, kontzeptuen eta edukien barne lana errazteko talde dinamika bat proposatzen da eta fitxako hurrengo ataletan azalduko dira.

Helburu didaktikoak

- Ikasleengan kontzientzia sorraraztea munduan uraren eskuragarritasun unibertsalari eta bidezkoari eta haren kudeaketari buruz.
- Hainbat kontzeptu ezagutu eta erabiltzea eta haiei buruz hausnartzea, besteak beste, estres hidrikoa, kutsadura, baliabide hidrikoen banaketa, eta ur geza berriztagarri alternatiboa.
- Arazoaren osotasunaz eta arazo horri irtenbidea emateko mundu mailako politiken beharraz hausnartzea.
- Uraren gainera kultura berri bat eraikitze baliabideak ematea, bai mundurako, bai tokian tokiko ekintzen bidez.
- Hausnarketa eta eztabaida piztea, uraren kudeaketari buruzko alderdi sozialen, ekonomikoen, kulturalen eta ingurumenezkoen gainean.
- Ura neurritz gain kontsumitzearen aurka sentsibilizatzea, bai eta edateko ura eskuragarri dutenen eta ez dutenen arteko desoreken aurka ere.

Saioaren garapena

Saio hau hasteko, irakasleak, labur-labur, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuak zer diren gogoratuko du. Ondoren, Garapen Iraunkorrerako 6. helburua "Edateko ura eta saneamendua"-ren azalpena modu erraz eta motibagarri batean gauzatzeko 2 minututako iraupena daukan ondorengo bideoa jarri dezake:

GIH 6 | Edateko ura eta saneamendua



<https://www.youtube.com/watch?v=traN3ftZF7M>

Behin bideoa ikusi ondoren, ikasle bakoitzak bakarka eta gero talde haundian zeintzuk diren helburu honen erronka nagusienak partekatuko dituzte eta hausnarketa bat egingo da guztien artean (10 minutu). Garrantzitsua izango da, irakaslearen laguntzarekin, edateko ura eta saneamendua mundu mailan biztanle guztiontzako, gaur egun, bermatzearen arrazoi eta faktore nagusienak zeintzuk diren guztien artean identifikatzea. Aldi berean, beste 17 GIH-etatik zeintzuekin elkarlotu daitekeen eta lotura hauen arrazoiak ere identifikatzea: adibidez ekoizpen eta kontsumo arduratsuarekin (GIH 12), desberdintasuna murriztearekin (GIH 10), Osasuna eta ongizatearekin (GIH 3) edo eta Pobrezia desagerraraztearekin (GIH 1).

Irakasleak hausnarketa dinamizatuko du eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua gida-tuko du.

Irakaslearentzat lagungarria izan daiteke ondorengo orrialdean dagoen informazioa aurrez ikustea, dinamizazio lana errazteko:

<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/water-and-sanitation/>

<http://www.undp.org/content/undp/es/home/sustainable-development-goals/goal-6-clean-water-and-sanitation.html>



Ondoren, "Ura, ezinbesteko baliabidea" 1. posterra, proiektatuko da eta irakasleak bertan azaltzen diren datu esanguratsuenak, modu laburrean azalduko ditu ikasgela osoarentzat. 2030ra begira 6. GIH-aren erronka nagusienetariko bat ondorengo hau dela gogoratuz: Hemendik 2030era, edateko uraren eskuragarritasun unibertsala eta bidezkoa lortzea, pertsona guztientzat arrazoizkoa den prezioan.

Ura, ezinbesteko baliabidea:

http://www.unescoetxea.org/dokumentuak/poster1_eusk.pdf

Jarraian, ikasle bakoitzak bakarka (5 minututan) ondorengo galderak erantzungo ditu:

- Zer esan nahi dute baieztapen hauek? Eman uraren garrantziaren adibideak, baieztapen bakoitzean:
 - » "Ura ezinbestekoa da izaki bizidun guztientzat...":
 - » "... eta Lur planetako ekosistema ororentzat"...:
 - » "... oinarritzko elementua da gizakion osasunerako...":
 - » "... nekazaritzarako...":
 - » "... eta industriarako":

Iradokizun gisa, irakasleak ikasleei esan dakieke honela has ditzatela erantzunak: "Urari esker...".

Eta 4-5 ikasleez osaturiko taldeetan ondoren galderak eztabaidatuko dituzte (15 minutu):

Konparatu posterreko erdialdeko bi grafikoak, eta aipatu zer erlazio dagoen estres hidrikoaren, kontinente bakoitzeko biztanleriaren, eta ur gezaren proportzioaren artean.

Hona hemen eztabaidarako gai batzuk:

- » Ba al da Afrikan eta Asian ur-eskasia dagoela pentsatzeko arrazoirik? Zergatik?
- » Ikusten al duzu loturarik ura eskuragarri izatearen eta herrialdeen aberastasunaren artean?
- » Aurkitu al duzu mapan zu bizi zaren tokia? Ura eskuragarri al dago zu bizi zaren lurraldean? Ur asko kontsumitzen al da zure bizitokian?
- » Ezagutzen al duzue ura kutsatzen duen eta ur-baliabideak degradatzen dituen elementurik? Zein/zeintzuk?
- » Uraren kutsadurak ondorio kaltegarriak eragiten ditu ingurumenean eta pertsonengan. Eman kasu bakoitzeko adibide batzuk.
- » Ezagutzen al duzu ur-kutsaduraren kasurik zure udalerrian? Nondik sortu da kutsadura? Zer ondorio izan ditu? Egin al da zure udalerrian ekintzarik kutsadura salatze edo ingurumena garbitzeko?
- » Azaldu zer ekintza egin dezakegun aurreko kasuetan, ur-baliabideen degradazioari aurrea hartzeko. Beste GIH-rekin lotura ikusten duzu?
- » Ura aurreztu beharra baldin badago, zure ustez zer neurri hartu beharko lirateke munduan horretarako? Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusia bazina zer bultzatuko zenuke?

Ondoren, ikasle bakoitzak bakarka (10 minututan), hausnarketa pertsonala eta enpatia sustatzeko baliagarri izan daitekeen ondorengo ariketa gauzatu dezakete. Ariketa honen erantzunak ez dauzkate derrigorrez partekatu beharrik. Nahi izanez gero, ikasle bakoitzak ariketa honen bitartez sentitu duena partekatu dezake:

- » Idatzi egunean zehar ura erabiliz egiten dituzun gauzen zerrenda eta banatu 30 puntu zeregin horien guztien artean. Ondoren, imajinatu balizko lehorte batengatik 29 puntu kendu behar dituzula. Nola eragingo lioke horrek zure bizi-kalitateari? Zein neurri hartu ditzakezu etxean ura aurrezteko?

Aukerazko jarduera gehigarria

Gaia gehiago sakontzeko motibazioa izanez gero beste saio bat erabili daiteke gaia lantzen jarraitzeko. Horretarako aukera modura, jarduera gehigarri bat proposatzen da:

Irakasleak "Ura izateko eskubidea, osasunerako eskubidea" (3. posterra) proiektatuko du ikasgela guztiarentzat eta 1. posterrarekin egindako dinamika antzeko bat jarraitu dezake, behin posterreko eduki eta datu nagusienak guztien artean modu labur batean azaldu eta gero:

Ura izateko eskubidea, osasunerako eskubidea:

http://www.unescoetxea.org/dokumentuak/poster3_eusk.pdf

4-5 ikasleez osaturiko taldeetan ondoren galderak eztabaidatuko dituzte (20 minutu):

- "Edateko ura izatea eta hondakin-urak tratatzea ezinbestekoa da gizakion beharrak asetzeko eta bizitza duina bermatzeko". Azaldu esaldi hori.
 - » Zertaz ari da gizakion beharrak aipatzen dituenen?
 - » Egunen batean, zertarako erabiltzen duzu ura? Beste herrialde batean biziz gero, era berean erabili ahalko zenuke?
 - » Zertaz ari da bizitza duina aipatzen duenak?
- Erreparatu posterrari, eta eztabaidatu taldeka zer esan nahi duten termino hauek:
 - » Ur-hornidurako zerbitzua
 - » Saneamendu-zerbitzua
- Erreparatu posterreko grafikoei. Etxean urik eta saneamendurik ez duten pertsonak munduan nola banatzen diren ageri dute.
 - » Zein dira kontinenterik kaltetuenak? Zergatik?
 - » Eta zein gutxien kaltetuak? Zergatik?
 - » Zure ustez, diagrama horietan zergatik ez dira Ipar Amerika eta Ozeania agertzen?

Posterrean, ura eta osasuna lotzen dituen eskema txiki bat dago. Zer interpretatzen duzu?

- “Urik ez izateagatik edota ur kutsatua kontsumitzeagatik gaixo dauden pertsona gehienak bost urtetik beherako haurrak dira, eta herrialde pobreetan bizi dira.”
- Ezagutzen al duzu bost urtetik beherako haurrik, urik ez izateagatik edo ur kutsatua kontsumitzeagatik gaixo dagoenik? Eta pertsona heldurik? Zergatik da hori?
- Ba al dakizu zer gaixotasun dauden zuzenean urarekin lotuta? Ezagutzen al duzu gaixotasun horietakoren bat izan duen norbait? Zergatik?

Ebaluaketa eta hausnarketa

Talde bakoitzak poster bakoitzaren inguruko galderak erantzun beharko dituzte eta hauen inguruko hausnarketa bat partekatu beharko dute beste taldeen aurrean. Beraz, irakasleak talde-lanaren ebaluaketa elementu modura erabili dezake, talde bakoitzaren hausnarketa maila eta kalitatea eta aukeran, idatziz jaso dezake ariketaren laburpen dokumentua.

Baliabideak eta materialak

- Proiektorea eta altabozak
- Arbela
- Taldeka lan egiteko ordenagailuak eta interneta
- Bideoa GIH 6 (2 minutu):
 - Eusk - <https://www.youtube.com/watch?v=traN3ftZF7M>
 - Cast - çUra XXI. Mendean posterrak:
http://www.unescoetxea.org/base/berriak.php?id_atala=1&id_azpiatala=1&hizk=eu&zer=orokorrean&nor=693w



Fitxa 07

GIH 07: Energia eskuragarria eta ez-kutsagarria

55-80 minutu
(saio bat edo saio bat eta erdi)



Jardueraren deskribapena

Saio honetan, Garapen Iraunkorrerako 2. Helburua landuko da: "Energia eskuragarria eta ez-kutsagarria". Irakasleak nahi duenean erabil dezake fitxa hau, unitate didaktiko hau aurkezteko lehen fitxa landu ondoren. Esan bezala, ikasturtean zehar, tutoretza-orduetan egin daiteke, edo gaia ikasgaiaren programazio didaktikoan egoki txerta daitekeela uste dugunean.

Saio honetan, hainbat kontzeptu landuko dira:

- Garapen Iraunkorrerako 7. Helburua zer den ("Energia eskuragarria eta ez-kutsagarria").
- Garapen Iraunkorraren eta "Energia eskuragarria eta ez-kutsagarria" helburuaren arteko lotura, eta gainerako GIHein duen lotura.
- Energia berriztagarriak.
- Energiaren efizientzia eta erabilpena.
- Energia-proiektu erraldoiak.

Kontzeptuak modu erakargarrian lantzeko asmoz, fitxa honetan zenbait euskarri erabiltzea proposatzen da. Bideoak, web-orriak eta abar egongo dira erabilgarri, baliabideak eta materialak atalean.

Bestalde, ikasleek kontzeptuak eta edukiak errazago barnera ditzaten, bi talde-dinamika egitea proposatzen da. Talde-dinamika horiek hurrengo atalean azalduko ditugu.

Helburu didaktikoak

- Ikasleak energia-motei buruz eta haien abantailei eta desabantailei buruz kontzientziaztea.
- Ikasleek beren kontsumo elektrikoari buruz eta elektrizitatearen jatorriari buruz hausnartzea.
- Energia berriztagarriko proiektu erraldoiek izan ditzaketen ondorio kaltegarriak erreparatzea.
- Energiaren ekoizpenean eta banaketan demokraziari garrantzia ematea.

Saioaren garapena

Saio hau hasteko, irakasleak, labur-labur, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuak zer diren gogoratuko du. Ondoren, Garapen Iraunkorrerako 7. helburua modu erraz eta motibagarrian azaltzeko, 2 minutuko bideo hau jar dezake:

GIH 07 | Energia eskuragarria eta ez-kutsagarria



<https://www.youtube.com/watch?v=N9VUVI19W2M>

Bideoa ikusi ondoren, helburu honen erronka nagusiak zein diren hausnartuko du ikasle bakoitzak bakarrik, eta gero, ikasleek hausnarketa egingo dute denek batera (10 minutu). Hausnarketa hori bideratzeko, honako galderak egin daitezke:

- » Zer energia-iturri ez-berriztagarri ezagutzen dituzu? Zein dira energia ez-berriztagarrien desabantaila nagusiak?
- » Zer energia-iturri berriztagarri ezagutzen dituzu? Zein dira energia berriztagarrien abantaila nagusiak?
- » Zure ustez, zergatik erabiltzen dituzte garraiobide gehienek energia ez-berriztagarriak?

Hori egin ondoren, ikasle bakoitzak bere etxean energia elektrikoaz egiten duen erabilpenari buruzko hausnarketa egingo du (15-20 minutu). Horretarako, hainbat etxetresna eta gailu elektrikoren ordukako kontsumoari buruzko taula honen antzeko bat emango zaie. Eguneko, batez beste, etxetresna edo gailu elektriko bakoitza gutxi gorabehera zenbat denbora erabiltzen duten pentsatu, eta guztizko kontsumoa kalkulatu beharko dute. Gero, kontsumo hori premiazko behar bat den ala ez baloratu beharko dute 1etik 5era.

- » Zein dira premiazko beharrak asetzen dituzten erabilpenak? Eta luxuzko beharrak asetzen dituztenak, hau da, ezinbestekoak ez direnak?
- » Nola bereiz daitezke premiazko beharrak eta ezinbestekoak ez direnak?
- » Energia-krisi bat izango balitz, zenbatean murriztu nezake nire eguneko kontsumo elektrikoa?

Nahi izanez gero, hausnarketarako azken galdera hau ere egin diezaiekezu ikasleei: Jakin al dezakegu etxean kontsumitzen dugun energia iturri berriztagarrietatik datorren ala ez? Honako enpresa hauek % 100 berriztagarria den elektrizitatea saltzen dute: Goiener, Som Energia, eta Iberdrolaren Energia Berdea.

Erabilpena	Ordukako kontsumoa	Eguneko erabilpena (ordutan edo zatikitik)	Egunkako kontsumoa	Premiazko beharra (1) ala luxua (5)?
Telefono adimenduna	20W			1 2 3 4 5
Mikrouhin-labea	850W			1 2 3 4 5
Telebista	215W			1 2 3 4 5
Ordenagailua	270W			1 2 3 4 5
Tableta	50W			1 2 3 4 5
Bideokontsola (telebistarik gabe)	200W			1 2 3 4 5
Ile-lehorgailua	400W			1 2 3 4 5
Garbigailua	600W			1 2 3 4 5
Hozkailua	100W			1 2 3 4 5
Ontzi-garbigailua	1250W			1 2 3 4 5
Dutxa 40 gradutan	7500W			1 2 3 4 5

Jarraian, "Presa Amazonian" izeneko dinamika egiteko, banatu ikasleak bi taldetan (20-30 minutu). Playing izeneko rol-teknikaren bidez, talde bat Brasilgo gobernuaren tokian jarriko da, eta bestea Amazonas ibaiaren ondoan bizi den giza talde baten tokian. Brasilgo gobernuak energia elektriko gehiago ekoitzi nahi du. Bi hiri energiaz hornitu nahi ditu, eta, horretarako, zentral hidrauliko bat eraiki nahi du Amazonas ibaian. Inguru horretan bizi den giza taldeak elektrizitatea nahi du, baina presa egitearen kontra dago. Bi taldeek bilera bat antzestu, eta konponbiderik onena bilatuko dute bi alderdientzat. Hortaz, helburua adostasun batera iristea izango da. Eztabaidatzen hasi baino lehen, talde bakoitzak gaiari buruzko informazioa bilatu eta hausnartuko du, testu bera oinarri hartuta:

<https://www.europapress.es/internacional/noticia-brasil-indigenas-protestan-brasil-contr-construccion-tercera-presa-mas-grande-mundo-20110209012417.html>

Irakasleak moderatzaile-lanak egingo ditu, eta, nahi izanez gero, honako galdera hauek egingo dizkie bi taldeei:

- » Zer abantaila ditu presa hidrauliko bat eraikitzeak? Norentzat izango dira abantaila horiek?
- » Zein dira hura eraikitzearen ondorio kaltegarriak? Nork jasango ditu ondorio horiek?
- » Nork du presa eraiki ala ez erabakitze eskubide handiagoa, demokratikoki aukeratutako gobernuak ala ibaiaren ondoan bizi den giza taldeak? Zergatik?
- » Presa egin ordez, beste zerbait egin al daiteke? Beste energia-motaren bat agian?

Nahi izanez gero, eman argibide hau ikasleei: Zentral txikiagoak erabil ditzakete (ingurumenean eta gizartean inpaktu txikiagoa dutenak, alegia), energia hori kontsumituko den lekutik hurbil.

Ebaluaketa eta hausnarketa

Ezinbesteko energia-beharrak eta ezinbestekoak ez direnak baloratzean, irakasleak argudioen eta gogoeten kalitatea erabil dezake, ebaluazio-irizpide gisa. Presari buruzko eztabaidan, elkarriketarako gaitasunik, eta akordio bat lortzeko norberaren beharrak eta besteenak bateratzeko gaitasunik ote duten balora daiteke.

Baliabideak eta materialak

- Proiektorea eta bozgorailuak
- Arbela
- Ordenagailuak eta Internet, talde-lanerako
- Garapen Iraunkorrerako 7. Helburuari buruzko bideoa (2 minutu):
<https://www.youtube.com/watch?v=N9VUVI19W2M>
- Eztabaidarako, artikulu hau proposatzen da:
<https://www.europapress.es/internacional/noticia-brasil-indigenas-protestan-brasil-contr-construccion-tercera-presa-mas-grande-mundo-20110209012417.html>
- Garapen Iraunkorrerako 7. Helburuari buruzko informazio gehiago lortzeko web-orria:
<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/energy/>



Fitxa 08

GIH 08: Lan duina eta hazkunde ekonomikoa.

55-80 minutu
(saio bat edo saio bat eta erdi)



Jardueraren deskribapena

Saio honetan, Garapen Iraunkorrerako 8. Helburua landuko da: "Lan duina eta hazkunde ekonomikoa". Irakasleak nahi duenean erabil dezake fitxa hau, unitate didaktiko hau aurkezteko lehen fitxa landu ondoren. Esan bezala, ikasturtean zehar, tutoretza-orduetan egin daiteke, edo gaia ikasgaiaren programazio didaktikoan egoki txerta daitekeela uste dugunean.

Saio honetan, hainbat kontzeptu landuko dira:

- Garapen Iraunkorrerako 8. Helburua zer den ("Lan duina eta hazkunde ekonomikoa").
- Garapen Iraunkorraren eta "Lan duina eta hazkunde ekonomikoa" helburuaren arteko lotura, eta gainerako GIHein duen lotura.
- Enplegu prekarioa.
- Soldata-arraila.
- Soldata duina eta lan-baldintzak.

Kontzeptuak modu erakargarrian lantzeko asmoz, fitxa honetan zenbait euskarri erabiltzea proposatzen da. Bideoak, web-orriak eta abar egongo dira erabilgarri, baliabideak eta materialak atalean.

Bestalde, ikasleek kontzeptuak eta edukiak errazago barnera ditzaten, zenbait talde-dinamika egitea proposatzen da. Talde-dinamika horiek hurrengo atalean azalduko ditugu.

Helburu didaktikoak

- Ikasleak enplegu duin bat lortzeko zailtasun gehien duten kolektiboei buruz kontzientziatzea.
- Soldata duin bat edukitzearen esanahiari buruz hausnartzea, bizitzaren kostua kontuan hartuta.
- "Lan duina" kontzeptuaren barneko askotariko dimentsioei buruz hausnartzea.
- Gizarteak zaintza-lanei zer garrantzi ematen dien baloratzea.

Saioaren garapena

Saio hau hasteko, irakasleak, labur-labur, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuak zer diren gogoratuko du. Ondoren, Garapen Iraunkorrerako 8. Helburua modu erraz eta motibagarrian azaltzeko, 2 minutuko bideo hau jar daiteke:

GIH 08 | Lan duina eta hazkunde ekonomikoa



<https://www.youtube.com/watch?v=NSVUVIF5WBM>

Bideoa ikusi ondoren, helburu honen erronka nagusiak zein diren hausnartuko du ikasle bakoitzak bakarrik, eta gero, ikasleek hausnarketa egingo dute denek batera (10 minutu). Honako galdera hauek egin daitezke, lan-baldintza okerrenak eta lanpostu bat lortzeko zailtasunik handienak dituzten kolektiboak zein diren nabarmentzeko:

- » Zure ustez, zergatik daude hainbeste gazte langabezia?
- » Zure ustez, zergatik da zailagoa lanpostu bat lortzea emakumeentzat? Zure ustez, zergatik kobratzen dute emakumeek gizonen erdia, batez beste? (soldata-arraila)
- » Zure ustez, zergatik dituzte lan-baldintza okerragoak pertsona migratzaileak? (Kontraturik ez, lan prekarioak, soldata txikiagoak, eta abar)

Jarraian, ikasleak 4-5 taldetan banatuko dira, honako gai honi buruz gogoeta egiteko: zenbat diru irabazi beharko dut bizitzeko? (10-15 minutu).

Horretarako, pertsona batek hilean zenbat diru behar duen kalkulatu beharko dute ikasleek, pertsona hori bakarrik bizi dela, astean 5 egunez lan egiten duela, lan-egunetan eguneko menua jaten duela, garraio publikoan mugitzen dela eta alokairuzko etxebizitza batean bizi dela kontuan hartuta. Diru-kopuru hori gutxi gorabehera kalkulatzeko, honako web-orria erabil dezakete:

<https://www.expatistan.com/es/costo-de-vida/pais/espana>

Taldeek beren gogoetak elkarren artean partekatzen dituztenean, talderen batek besteek baino gastu gehiago kontuan hartu dituen ikus daiteke; adibidez, elektrizitate-eta ur-gastuak, menua jateaz aparteko janaria, aisialdia, edo arropa. Nahi izanez gero, egin galdera hauek ikasleei:

- » Bizitzeko nahikoa al da lanbide arteko gutxieneko soldata?
- » Lanbide arteko gutxieneko soldata kobratuko bazenu, dirua aurreztu, oporretara joan eta/edo auto bat erosi ahal izango zenuke?
- » Etxebizitza hutsik egongo balitz, nola erosiko zenituzke altzariak eta etxetresna elektrikoak?

Talde beretan, lan duin bat zer den baloratuko dute ikasleek taula honetan (15-20 minutu). Horretarako, honako irizpide hauei zenbat puntu eman adostu beharko dute, 1etik 10era, eta irizpide jakin bati puntu-kopuru jakin bat emateko arrazoia zein den azalduko dute esaldi batean.

Irizpidea	Garrantzia (1-10)	Zergatik?
Soldata		
Ordutegia		
Etterainoko distantzia		
Lankideekin harremana		
Nagusiekin harremana		
Lanak motibatzen zaituen ala ez		
Gizarteari ematen diozuna		
Enpresaren baloreak		
Lan egiteko autonomia		
Lanpostua arriskutsua den ala ez		
Ingurumen-inpaktua		

Amaitzen dutenean, talde bakoitzak zer irizpide baloratu dituen gehien, eta irizpide horiei garrantzia handiagoa emateko arrazoiak zein diren azalduko du. Nahi izanez gero, egin galdera hauek ikasleei:

- » Garrantzitsua al da zure lanak gizarteari ematen diona baloratzea? (adibidez, arma-enpresa batean lan egitea).
- » Garrantzitsua al da zure lanak ingurumenean dituen inpaktuak baloratzea? (Adibidez, zuhaitzak moztea eskala handian).
- » Lanpostu guztiak al dira beharrezkoak eta/edo desiragarriak?

Saio hau amaitzeko, beste pertsona baten etxean lan egin eta bizi diren emakumeei buruzko 2 minutuko bideoa ikusiko dute, eta enplegu prekarioko kasu zehatz horri buruz taldean gogoeta egitea proposatzen da (15 minutu). Bideoan, bi langileren esperientziak kontatzen dira 1. minutu eta 45. segundotik aurrera:

<https://www.eitb.eus/es/noticias/sociedad/detalle/3871892/esclavas-hogar-hablan-empleadas-hogar-internas-bizkaia/>

- » Zergatik dira emakumeak beste pertsona baten etxean lan egin eta bizi diren langile gehienak?
- » Emakume izateaz gainera, zergatik dira migratzaileak?
- » Garrantzitsua eta beharrezkoa al da haien lana gizartearentzat? Zergatik?
- » Zure ustez, zergatik dute hain soldata baxua?
- » Zer neurri hartuko zenituzke haien egoera hobetzeko?

Ebaluaketa eta hausnarketa

Talde bakoitzaren argudioen eta gogoeten kalitatea erabil dezake irakasleak, ebaluazio-irizpide gisa. Erantzunei baino, erantzunak arrazoitzeko moduari erreparatuko zaio.

Baliabideak eta materialak

- Proiektorea eta bozgorailuak
- Arbela
- Ordenagailuak eta Internet, talde-lanerako
- Garapen Iraunkorrerako 8. Helburuari buruzko bideoa (2 minutu):
<https://www.youtube.com/watch?v=DSGAuTF5vBMm>
- Beste baten etxean lan egin eta bizi diren emakumezkoei buruzko bideoa:
<https://www.eitb.eus/es/noticias/sociedad/detalle/3871892/esclavas-hogar-hablan-empleadas-hogar-internas-bizkaia/>
- Garapen Iraunkorrerako 8. Helburuari buruzko informazio gehiago lortzeko web-orria:
<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/economic-growth/>



Fitxa 09

**GIH 09: Industria, berrikuntza eta
azpiegiturak.**

55-80 minutu
(saio bat edo saio bat eta erdi)



Jardueraren deskribapena

Saio honetan, Garapen Iraunkorrerako 9. Helburua landuko da: "Industria, berrikuntza eta azpiegiturak". Irakasleak nahi duenean erabil dezake fitxa hau, unitate didaktiko hau aurkezteko lehen fitxa landu ondoren. Esan bezala, ikasturtean zehar, tutoretza-orduetan egin daiteke, edo gaia ikasgaiaren programazio didaktikoan egoki txerta daitekeela uste dugunean.

Saio honetan, hainbat kontzeptu landuko dira:

- Garapen Iraunkorrerako 9. Helburua zer den ("Industria, berrikuntza eta azpiegiturak").
- Garapen Iraunkorraren eta "Industria, berrikuntza eta azpiegiturak" helburuaren arteko lotura, eta gainerako GIHein duen lotura.
- Interneterako sarbide unibertsala.
- Azpiegitura erresilienteak.
- Patenteak, berrikuntza eta transferentzia teknologikoa.

Kontzeptuak modu erakargarrian lantzeko asmoz, fitxa honetan zenbait euskarri erabiltzea proposatzen da. Bideoak, web-orriak eta abar egongo dira erabilgarri, baliabideak eta materialak atalean.

Bestalde, ikasleek kontzeptuak eta edukiak errazago barnera ditzaten, zenbait talde-dinamika egitea proposatzen da. Talde-dinamika horiek hurrengo atalean azalduko ditugu.

Helburu didaktikoak

- Interneterako sarbidea giza eskubide gisa ikustea.
- Natura-hondamendiei aurre egiteko azpiegituren garrantziari buruz kontzientziaztea.
- Berrikuntza eta transferentzia teknologikoa sustatzeko, patenteen abantaila eta desabantaila buruz hausnartzea.

Saioaren garapena

Saio hau hasteko, irakasleak, labur-labur, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuak zer diren gogoratuko du. Ondoren, Garapen Iraunkorrerako 9. Helburua modu erraz eta motibagarrian azaltzeko, 2 minutuko bideo hau jar daiteke:

GIH 09 | Industria, berrikuntza eta azpiegiturak



<https://www.youtube.com/watch?v=9Xec5Ylxy6o>

Bideoa ikusi ondoren, helburu honen erronka nagusiak zein diren hausnartuko du ikasle bakoitzak bakarrik, eta gero, ikasleek hausnarketa egingo dute denek batera (10 minutu). Honako galdera hauek egin daitezke:

- » Zure ustez, zergatik da garrantzitsua garraio-sare on bat edukitzea?
- » Zer arazo sor daitezke hiri batean estolderia-sistema egoera txarrean egonez gero?
- » Zure ustez, zergatik egiten dira berrikuntza eta asmakari gutxiago pobretutako herrialdeetan?

Jarraian, ikasleak 4-5 taldetan banatuko dira, eta Interneterako sarbiderik gabe bizitza nolakoa den imajinatuko dute (10-15 minutu). Hasi baino lehen, Interneterako sarbiderik ez duten pertsonen ehunekoa erakuts dezake irakasleak, honako mapa hau erabiliz:

<https://www.trecebits.com/2017/01/26/mapa-mundial-del-acceso-a-internet/>

Gaur egun Internet erabiliz kudeatzen ditugun kontuak beste era batera nola egin litezkeen proposatu beharko du talde bakoitzak, eta Interneterako sarbiderik ez izateak kasu bakoitzean sortuko lituzkeen desabantailak azalduko dituzte. Adibide hauekin lan egin daiteke:

- Zure herrialdean saltzen ez den produktu bat erostea Amazonen.
- Norabait gidatzea lehenengo aldiz, Google Maps aplikazioari esker.
- Lagunekin hitzordua zer ordutan izango den antolatzea, Whatsapp aplikazioaren bidez.
- Zure argazkiak jendearekin partekatzea, Instagram aplikazioaren bidez.
- Eskolarako lan bat egitea, Wikipediako informazioa kopiatuz.
- Telefilma baten denboraldi bat oso-osorik ikustea Netflixen.
- Karrera-amaierako zure proiektua posta elektroniko bidez bidaltzea.
- Gehien atsegin duzun bideo-jokoan linean jokatzeko.
- Etxetik lan egitea, enpresaren zerbitzarira konektatuz.

Taldeek beren gogoetak elkarren artean partekatzen dituztenean, Interneterako sarbiderik ez duten pertsonen zailtasunak azpimarratuko ditu irakasleak.

Talde beretan, "Ez dira soilik natura-hondamendiak" izeneko ikerketa egitea proposatuko diegu (15 minutu). 2010. urtean, 7,0 magnitudeko lurrikara batek 316.000 hildako eta 350.000 zauritu eragin zituen Haitin. 2011. urtean, 9,0 magnitudeko lurrikara batek eta haren ondorioz sortutako tsunamiak 15.893 hildako eta 6.152 zauritu eragin zituen Japonian. Ikasleek honako galdera hauei erantzuten saiatu beharko dute, Internet erabiliz:

- » Askoz ere intentsitate txikiagoa izan arren, Japonian izandako lurrikarak Haitin izandakoak baino askoz ere hildako gutxiago eragin zituen. Zein dira horren arrazoi nagusiak (2-3)?

Honako galdera hauek ikerketa bideratzeko balio dezakete:

- » Nola zendu ziren herrialde bateko eta besteko biktima gehienak?
- » Saio honetan jorratzen ari garen GIHari dagokionean, zer alde daude Haiti eta Japoniaren artean?

Talde bakoitzak aurkitu duena azalduko du, eta irakasleak ekarpen nagusiak bildu ditzake, Japoniako kasuan "azpiegitura erresiliente" delako kontzeptuak zer esan nahi duen azalduz.

Azken talde-dinamika gisa, berrikuntza sustatzeko patenteen abantailai eta desabantailai buruz eztabaidatzea proposatzen da (15 minutu). Hasi baino lehen, irakasleak ziurtatu behar du ikasle guztiek dakitela "patente" hitzak zer esan nahi duen. Jarri ikasleak bi taldetan. Playing izeneko rol-teknikaren bidez, talde batek defendatuko du patenteak berrikuntza sustatzeko eta asmakariak sortzeko mesedegarriak direla, eta kontrakoa defendatuko du besteak. Eztabaidatzen hasi baino lehen, bost minutu izango dituzte argudioak prestatzeko.

Patenteen aldeko taldearentzat, lagungarriak izan daitezke honako galdera hauek:

- » Zer-nola babesten du patenteak asmatzailea haren asmakaria kopiatu nahi duenaren aurrean?
- » Nola susta dezakete patenteek pertsonak berritzea eta asmakari berriak sortzea?
- » Patenteen kontrako taldearentzat, lagungarriak izan daitezke honako beste galdera hauek:
- » Nola garestitu eta zaildu dezakete patenteek asmakaria lortzea?
- » Berritzeak beti dakar berekin ezerezetik ezer berria sortzea?

Irakasleak bi taldeen argudioak bilduko ditu, eta berrikuntzaren eta pobretutako herrialdeetarako transferentzia teknologiaren garrantzia azpimarratuko du.

Ebaluaketa eta hausnarketa

Talde bakoitzaren gogoeten maila eta argudioen kalitatea erabil dezake irakasleak, ebaluazio-irizpide gisa, proposamen desberdinetan. Horrez gain, Haitiko eta Japoniako lurrikaren arteko aldeak ikertzeko orduan ikasleek erakutsitako autonomia ere balora dezake.

Baliabideak eta materialak

- Proiektorea eta bozgorailuak
- Arbela
- Ordenagailuak eta Internet, talde-lanerako
- Garapen Iraunkorrerako 9. Helburuari buruzko bideoa (2 minutu):
<https://www.youtube.com/watch?v=9Xec5Ylxy6o>
- Haitiko eta Japoniako lurrikarei buruzko informazioa duten estekak:
https://es.wikipedia.org/wiki/Terremoto_de_Hait%C3%AD_de_2010
https://es.wikipedia.org/wiki/Terremoto_y_tsunami_de_Jap%C3%B3n_de_2011
- Garapen Iraunkorrerako 9. Helburuari buruzko informazio gehiago lortzeko web-orria:
<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/infrastructure/>

Fitxa 10

GIH 10: Berdintasunik eza murriztea

55-80 minutu
(saio bat edo saio bat eta erdi)



Jardueraren deskribapena

Saio honetan, Garapen Iraunkorrerako 10. Helburua landuko da: "Berdintasunik eza murriztea". Irakasleak nahi duenean erabil dezake fitxa hau, unitate didaktiko hau aurkezteko lehen fitxa landu ondoren. Esan bezala, ikasturtean zehar, tutoretza-orduetan egin daiteke, edo gaia ikasgaiaren programazio didaktikoan egoki txerta daitekeela uste dugunean.

Saio honetan, hainbat kontzeptu landuko dira:

- Garapen Iraunkorrerako 10. Helburua zer den ("Berdintasunik eza murriztea").
- Garapen Iraunkorraren eta "Berdintasunik eza murriztea" helburuaren arteko lotura, eta gainerako GIHein duen lotura.
- Askotariko bazterketak.
- Ekitatea eta justizia.
- Aukera-berdintasuna.

Kontzeptuak modu erakargarrian lantzeko asmoz, fitxa honetan zenbait euskarri erabil-tzea proposatzen da. Bideoak, web-orriak eta abar egongo dira erabilgarri, baliabideak eta materialak atalean.

Bestalde, ikasleek kontzeptuak eta edukiak errazago barnera ditzaten, zenbait talde-di-namika egitea proposatzen da. Talde-dinamika horiek hurrengo atalean azalduko ditugu.

Helburu didaktikoak

- Herrialdeen artean eta pertsonen artean berdintasunik eza sortzen duten kausei buruz kontzientziaztea.
- Zenbait justizia-irizpideri buruz eta horiek noiz aplikatzeari buruz hausnartzea.
- "Aukera-berdintasun" benetakoa eta eraginkorra abiarazteko moduari buruz hausnartzea.

Saioaren garapena

Saio hau hasteko, irakasleak, labur-labur, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuak zer diren gogoratuko du. Ondoren, Garapen Iraunkorrerako 10. Helburua modu erraz eta motibagarrian azaltzeko, 2 minutuko bideo hau jar daiteke:

GIH 10 | Berdintasunik eza murriztea



<https://www.youtube.com/watch?v=yXe8jYlxyXo>

Bideoa ikusi ondoren, helburu horren erronka nagusiak zein diren hausnartuko du ikasle bakoitzak bakarrik, eta gero, ikasleek hausnarketa egingo dute denek batera (10 minutu). Honako galdera hauek egin daitezke: zure ustez, zein dira herrialde batzuk beste batzuk baino askoz ete gehiago pobretu izanaren arrazoiak? Zure ustez, zein dira pertsona batzuk beste batzuk baino askoz ere aberatsagoak izatearen arrazoiak? Zure ustez, zergatik da garrantzitsua herrialdeen artean eta pertsonen artean berdintasunik eza murriztea?

Jarraian, "Zer da bidezkoena?" izeneko dinamika egin daiteke (10-15 minutu), Amartya Senen "Justiziaren ideia (2010) izeneko liburuko dilema oinarri hartuta. Dinamikaren helburua da ikasleek erabakitzea hiru pertsona horietako zeinek geratu behar duen txirularekin. Horretarako, ikasleei hiru boluntario behar direla esango zaie, eta boluntario horietako bakoitzak jarrera jakin bat defendatuko du.

- Ni naiz hemen txirula jotzen dakien bakarra.
- Ni naiz hemen pobreena, eta ez dut jostailu bakar bat ere.
- Asteak behar izan nituen txirula egiteko.


Hiru pertsona horietako bakoitzak minutu bat izango du bere jarrera defendatzeko eta txirula beretzat zergatik izan beharko lukeen argudiatzeko. Hiru pertsona horiek esandakoa entzun ondoren, gainerako ikasleek, banaka, paper batean idatziko dute txirula nori emango lioketen eta zergatik.

Fitxa 10 4

Hori egin ondoren, irakasleak ikasle guztiei eskatuko die ikasgelako toki batean jartzeko (ezkerrean, erdian edo eskuinean), txirula nori eman dioten kontuan hartuta (1.ari, 2.ari ala 3.ari). Hori eginez, ikasgelaren iritzi nagusia zein den ikusi ahal izango da. Irakasleak ikasle batzuei galdetu diezaieke ea zergatik aukeratu duten pertsona horri txirula ematea, eta ea zergatik ez dioten eman beste bi pertsonetako bati. Ikasleei esango zaie lekuz alda daitezkeela, entzundako arrazoiak egokiak direla iruditzen bazaizkie. Azkenik, ikasgelaren iritzi nagusia zein den baloratuko da. Zergatik da aukeratutako banaketa-irizpidea bidezkoena? Irizpidea aldatuko al litzateke beste objekturen bat banatuko balitz, adibidez janaria?

Hurrengo jardueran, ikasleek "bidezko banaketaren" definizio bat idatzi beharko dute denen artean (10 minutu). Horretarako, 4-5 pertsonako taldeak egingo dituzte, eta egoera hau azalduko zaie: hiru pertsona eta hiru kaxa ditugu. Zure ustez, zein da kaxa horiek banatzeko modurik bidezkoena? Zergatik? Banaketa hori oinarri hartuta, nola definituko zenuke "bidezko banaketa"?

Talde bakoitzaren erantzunak entzun ondoren, irakasleak marrazki hau erakuts dezake, edo antzeko bat egin arbelean, eta, nahi izanez gero, galdera hauek egingo dizkie taldeei:



Banaketa bidezkoa dela iruditzen al zaizue? Zergatik? Zer-nolako banaketa litzateke "bidezkoa" egoera horretan? Nola aldatuko zenuke banaketa bidezkoaren definizioa egoera guztietan baliagarria izan dadin?

Ikasleek bidezko banaketari buruzko definizioak partekatuko dituzte elkarren artean, eta pertsonak behar berak eduki ez ditzaketela kontuan hartu behar dela azpimarratuko du irakasleak. Egoera horretan bidezko banaketa bat adierazten duen marrazkia erakuts daiteke, edo beste marrazki bat egin arbelean.

Amaitzeko, binaka, "Aukera-berdintasuna?" izeneko lana egitea proposatzen da (10-15 minutu)

Irakasleak ezaugarri batzuen zerrenda idatziko du arbelean, eta bikote bakoitzak honako lan hauek egin beharko ditu:

- Ezaugarri bakoitzaren kontrako ezaugarri bat idatzi.
- Gure gizartean bi ezaugarrietako zeinek dakarren zailtasun handiagoa aukeratu.
- Ezaugarri hori baztertu egiten dela erakusten duen adibide bat jarri.

Besteak beste, honako hauek izan daitezke ezaugarri horietako batzuk: emakumea, zuria, analfabetoa, heterosexuala, langabea, pobrea, etorkina, zaharra eta itsua.

Hori egin ondoren, bikote bakoitzak bi ezaugarri aukeratuko ditu, eta, ezaugarri horietako bakoitzari lotuta, aukera-berdintasuna sustatzeko modu bat proposatuko du. Taldeek beren proposamenak elkarren artean partekatuko dituzte, eta irakasleak "askotariko bazterketak" eta "inklusibitatea" bezalako kontzeptuetan sakondu ahal izango du.

Ebaluaketa eta hausnarketa

Talde bakoitzaren gogoeten eta argudioen kalitatea erabil dezake irakasleak, ebaluazio-irizpide gisa. Eztabaidan, beste taldeak esandakoa kontuan hartuta, taldeak bere argudioak berregiteko gaitasunik duen ala ez balora daiteke.

Baliabideak eta materialak


- Proiektorea eta bozgorailuak
- Arbela
- Ordenagailuak eta Internet, talde-lanerako
- Garapen Iraunkorrerako 10. Helburuari buruzko bideoa (2 minutu):
<https://www.youtube.com/watch?v=yXe8jYlxyXo>
- Garapen Iraunkorrerako 10. Helburuari buruzko informazio gehiago lortzeko web-orria:
<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/inequality/>



Fitxa 11

GIH 11: Hiri eta komunitate jasangarriak

55-80 minutu
(saio bat edo saio bat eta erdi)



Jardueraren deskribapena

Saio honetan, Garapen Iraunkorrerako 11. Helburua landuko da: "Hiri eta komunitate jasangarriak". Irakasleak nahi duenean erabil dezake fitxa hau, unitate didaktiko hau aurkezteko lehen fitxa landu ondoren. Esan bezala, ikasturtean zehar, tutoretza-orduetan egin daiteke, edo gaia ikasgaiaren programazio didaktikoan egoki txerta daitekeela uste dugunean.

Saio honetan, hainbat kontzeptu landuko dira:

- Garapen Iraunkorrerako 11. Helburua zer den ("Hiri eta komunitate jasangarriak").
- Garapen Iraunkorraren eta "Hiri eta komunitate jasangarriak" helburuaren arteko lotura, eta gainerako GIHein duen lotura.
- Hirigintza inklusiboa.
- Kudeaketa parte-hartzailea.
- Herrien eta hirien jasagarritasuna.

Kontzeptuak modu erakargarrian lantzeko asmoz, fitxa honetan zenbait euskarri erabil-tzea proposatzen da. Bideoak, web-orriak eta abar egongo dira erabilgarri, baliabideak eta materialak atalean.

Bestalde, ikasleek kontzeptuak eta edukiak errazago barnera ditzaten, bi talde-dinamika egitea proposatzen da. Talde-dinamika horiek hurrengo atalean azalduko ditugu.

Helburu didaktikoak

- Bizi garen hiriak eta herriak denen artean kudeatzearen eta parte-hartzea sustatzearen garrantziari buruz kontzientziaztea.
- Hirigintza-planek pertsonen bizitzan duten inpaktuari buruz hausnartzea.
- Hirien eta landa-eremuen arteko interdependentziari buruz gogoeta egitea.

Saioaren garapena

Saio hau hasteko, irakasleak, labur-labur, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuak zer diren gogoratuko du. Ondoren, Garapen Iraunkorrerako 11. Helburua modu erraz eta motibagarrian azaltzeko, 2 minutuko bideo hau jar daiteke:

GIH 11 | Hiri eta komunitate jasangarriak



https://www.youtube.com/watch?v=fXecCYlxy_o

Bideoa ikusi ondoren, helburu horren erronka nagusiak zein diren hausnartuko du ikasle bakoitzak bakarrik, eta gero, ikasleek hausnarketa egingo dute denek batera (10 minutu). Honako galdera hauek hausnarketa hori bideratzeko balio dezakete: zure ustez, zer esan nahi du hirigintzak inklusiboa izateak? Zure ustez, nola erabakitzen da hiri batean zer eraikin, kale edo plaza egin behar diren? Zergatik da garrantzitsua airearen kalitatea hobetzea hirietan?

Hori egin ondoren, ikasleek 4-5 kideko taldeak osatuko dituzte, eta "Nire herria/hiria hobetzen" izeneko dinamika egingo dute (20-25 minutu). Dinamika horren helburua da ikasleek bizi diren herria edo hiria hainbat esparrutan zer-nolakoa den aztertzea, eta esparru horiek hobetzeko proposamenak egitea.

- Nolakoa da bizi zaren herria edo hiria "X" esparruari dagokionean?
- Zure ustez, zer alderdi hobetu beharko lirateke esparru horretan?
- Zein dira zure hobekuntza-proposamenak?
- Nahi izanez gero, ikasleek esparru hauek azter ditzakete:
- Garraioa.
- Gune berdeak.
- Behar bereziak dituzten pertsonen irisgarritasuna (gurpildun aulkiak,itsuak, etab.)
- Plazak eta biltzeko tokiak (estaliak edo estali gabeak).
- Kultura-guneak.
- Garbiketa eta hondakinen kudeaketa.
- Kirol-guneak.
- Osasun-zerbitzuak.

Egoki irudituz gero, irakasleak 2-3 esparru emango dizkio talde bakoitzari. Talde bakoitzak bere hobekuntza-proposamenak azalduko ditu, eta dokumentu batean bilduko dira denak. Dinamika luzatzeko modu bat izan daiteke ikasleek 3-4 proposamenik onenak aukeratzea, eta proposamen horiek herriko edo hiriko udalari helaraztea, udalen web-orrietan izan ohi den abisuetarako, kexetarako eta iradokizunetarako postontzia erabiliz.

Saio hau amaitzeko, ikasleak bi taldetan banatu, eta honako gai honi buruz eztabaidatzea proposatzen da: non da jasangarriagoa bizitzea: herri batean edo hiri batean? (15 minutu). Role playing delako teknikaren bidez, talde bakoitzak jarrera bat defendatuko du, eta bere argudioak prestatzeko 5 minutu izango ditu. Honako hauek dira argudioak prestatzeko orduan kontuan har daitezkeen alderdi batzuk:

- Zerbitzuetarako garraioak (osasuna, erosketak, hezkuntza).
- Hondakinen sorrera eta kudeaketa.
- Elikagai-hornidura.
- Etxebizitzak eta energia-efizientzia.

Irakasleak moderatzaile-lanak egingo ditu, talde bakoitzak bere jarrera defenda dezan eta beste taldearen jarrerari erantzun diezaion. Eztabaida amaitzean, nabarmendu daiteke herriak eta hiriak elkarren artean mendekoak direla zerbitzuak eskaini eta eskatzeko orduan (adibidez, elikadura-zerbitzuak vs. zerbitzu teknologikoak).

Ebaluaketa eta hausnarketa

Talde bakoitzaren gogoeten eta argudioen kalitatea erabil dezake irakasleak, ebaluazio-irizpide gisa.

Baliabideak eta materialak

- Proiektorea eta bozgorailuak.
- Arbela.
- Ordenagailuak eta Internet, talde-lanerako.
- Garapen Iraunkorrerako 11. Helburuari buruzko bideoa (2 minutu):
https://www.youtube.com/watch?v=fXecCYlxy_o
- Garapen Iraunkorrerako 11. Helburuari buruzko informazio gehiago lortzeko web-orria:
<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/cities>

Fitxa 12

GIH 12: Ekoizpen eta kontsumo arduratsua

Iraupena: 50-80 minutu
(saio bat edo saio bat eta erdi)



Jardueraren deskribapena

Saio honetan, 12. GIHa landuko da, "Ekoizpen eta kontsumo arduratsua". Fitxa hau Unitate Didaktiko honetako 1. sarrera fitxa landu ondoren irakasleak nahi duen unean gauzatu dezake. Esan bezala, ikasturtean zehar, tutoretza orduetan edota ikasgaiaren programazio didaktikoarekin gaia ondo txertatzeko aukera dagoenean gauzatu daiteke.

Saio honetan, hainbat kontzeptu landuko dira:

- Garapen iraunkorreko 12. helburua, "Ekoizpen eta kontsumo arduratsua", kontzeptua zer den.
- Garapen iraunkorraren eta "Ekoizpen eta kontsumo arduratsua"ren arteko lotura, eta beste 17 GIHekin duen interrelazioa.
- Eredu kapitalistak bultzatzen dituen kontsumo ereduak: kontsumismoa eta horrek sortzen dituen ondorioak.

Kontzeptuak modu erakargarri batean lantzeko asmoz, fitxa honetan, euskarri ezberdinen erabilera proposatzen da. Argazkiak, bideoak, web orriak eta abar egongo dira erabilgarri fitxa honetan (baliabideak eta materialak atalean).

Bestalde, kontzeptuen eta edukien barne-lana errazteko, talde dinamika bat proposatzen da, eta fitxako hurrengo ataletan azalduko da.

Helburu didaktikoak

- Gure kontsumo-ohiturekin lotuta, baliabideak xahutzeak dituen ondorioei buruz gogoeta egitea.
- Gure kontsumo-ohituren aldaketan pertsona guztiok parte hartzeak duen garrantziaz jabetaraztea.
- Planeta iraunkor bat lortzea bermatzen duen ekoizpen-eredu batek duen garrantziaz jabetaraztea ikasleak.
- Kontsumo arduratsugoko eredu batzuekiko sentiberatzea ikasleak.

Saioaren garapena

Saio hau hasteko, irakasleak, labur-labur, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuak zer diren gogoratuko du. Ondoren, Garapen Iraunkorrerako 12. Helburuaren azalpena modu erraz eta motibagarri batean gauzatzeko, 2 minutuko iraupena duen bideo hau jar dezake:

GIH 12 | Ekoizpen eta kontsumo arduratsua



<https://www.youtube.com/watch?v=4cXuOxlzZnw&list=PLVpRIgPG0eJmX-SEnHuS2J92WVlzBNdxDV&index=26>

Behin bideoa ikusi ondoren, ikasleek, lehenengo bakarka eta gero talde handian, helburu horren erronka nagusiak zeintzuk diren eta ekoizpen eta kontsumo arduratsua zer den aztertuko dute, eta gero, hausnarketa bat egingo da guztien artean. Hausnarketa indibiduala errazteko, ondorengo egoera eta egoera horrekin loturiko galderak aurkeztuko dira; lehenengo, bakarka erantzungo zaie, eta gero, aukeran, 3-4 pertsonako talde txikietan parteka daitezke erantzunak (10 minutu).

Ikasle bakoitzak folio batean idatziko du zein izan den egindako azken erosketa, eta ondoren, hurrengo galderei erantzungo die, kontsumo arduratsuaren inguruko hausnarketa gauzatzeko:

- » Behar dut edo beharrezkoa da erositako produktua?
- » Desio bat asetzeko erosi dut?
- » Asko pentsatu duzu erosi baino lehen?
- » Zenbat erabiliko dut?
- » Posible nuen norbaiti eskatzea uzteko?
- » Erosi aurretik bilatu dut informaziorik, kalitate hobea eta prezio txikiagoa daukan produktua erosteko?
- » Jada erabiltzeari uzten diodanean, zer egingo dut produktuarekin?
- » Material birziklagarriekin eginda dago?
- » Erabilitako lehengaiak berriztagarriak dira?
- » Badakit produktua nork eta nola egin den?

Hasierako hausnarketa egin ondoren, eta ekoizpen eta kontsumo arduratsua zer diren eztabaidatu ondoren, garrantzitsua izango da, irakaslearen laguntzarekin, arduratsuak ez diren kontsumo ereduek, hala nola, kontsumismoak eta horrek sortarazten dituen ondorio negatiboak guztien artean identifikatzea. Era berean, baita beste 17 GIHrekin (Garapen Iraunkorreko Helburuak) dituen loturak identifikatzea, eta lotura horien arrazoieta pixka bat sakontzea ere.

Ikasleentzat erakargarria izan daiteke, azken urteotan gure inguruan oso ezaguna egin den Black Friday ekimen kontsumistaren inguruko bi bideo labur hauek ikustea ondoren:

Informe Semanal - Navidades in Black Friday (9 min):

<http://www.rtve.es/alacarta/videos/informe-semanal/informe-semanal-navidades-in-black-friday/3819622/>

Black fraude- por un día sin compras (3 min):

<http://ahotsa.info/edukia/black-fraude-por-un-dia-sin-compras-y-364-de-consumo-responsable>

Irakaslearentzat lagungarria izan daiteke ondorengo orrialdean dagoen informazioa aurrez ikustea dinamizazio lana errazteko, eta ongi legoke ondorengo bideoa ikustea:

<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/sustainable-consumption-production/>

Ondoren, irakasleak 4-5 pertsonako taldeak osatuko ditu, eta ondorengo talde-dinamika aurkeztuko du:

Talde bakoitzak 5 minututako iraupena izango duen **ROL-PLAYING** bat prestatu beharko du; lan horretan, ondorengo pertsonaiak azalduko beharko dira (gutxienez):

- Kontsumitzaile bat, normalean auzoko dendetan erosten duena
- Kontsumitzaile bat, askotan Internet bidez edo merkataritza gune handietan erosten duena
- Saltoki txiki baten jabea
- Merkatarien elkarteko ordezkaria
- Enpresa transnazional bateko Euskal Herriko ordezkaria
- Herriko/Hiriko alkatea

PROPOSATZEN DEN EGOERA:

Enpresa transnazional batek delegazio bat zabaltu berri du zuen herri edo hirian, eta delegazioaren irekiera ospatzeko asmoz, eta hiriko/herriko jendea erakarri nahian, festa bat antolatu nahi du, deskontu eta opari ugari eskainiz; horretarako, izugarrizko publizitatea egiten ari da herrian zehar, megafono eta kartelen bidez.

Egoera horren aurrean, bertako merkatariak oso haserre daude; izan ere, beraien salmentetan jaitsiera nabarmena aurreikusten dute; merkatarien elkarteak bilera ireki batera deitzeko eskatu dio Udalari, gai horren aurrean hiri edo herri mailan neurriak hartzeko, eta herritarrek ere beraien iritzia emateko. Beraz, bilera ireki horretan, gutxienez, aurreko puntuan proposatzen diren pertsonaiek parte hartuko dute. Talde bakoitzeko kideek rol ezberdinak hartuko dituzte, eta pertsonai bakoitzak kontsumo arduratsuaren aldeko edo kontrako argudioak aurkeztuko ditu, ondorengo puntuan adierazten den helburua lortzeko. Bertako merkatariak askotariko neurriak proposatuko dituzte, kontsumo arduratsuaren aurrean beraien egoera defendatzeko.

Nahi izanez gero, pertsonai gehiago gehitu ditzakezue rol-playing honetara. Lagungarria izango da, rol-playing-a gauzatzeko, aurrez, pertsonai bakoitzak gidoi bat prestatzea.

ROL-PLAYING HONEN HELBURUA:

Rol-playing honen helburu nagusia kontsumo eredu basatiek, hala nola eredu kapitalistak bultzatzen duen kontsumismoak, gure herrietako saltoki txikietan dituzten ondorio negatiboak azaleratzea da, eta horren aurrean, saltokiek, tokiko administrazioek eta herritarrek hartu ditzaketen neurriak modu erakargarri batean azaltzea.

Rol-playing-ean parte hartuko duten pertsonaien gidoia prestatu aurretik, irakasleak ondorengo galdera hauek proposa ditzake, talde txikian erantzuteko, eta ideia berriak sortarazten laguntzeko:

- Zeintzuk uste duzue direla saltoki handiek eta boteretsuek bultzatzen dituzten kanpainen edo ekimenen herrietako saltokietan sortzen dituzten ondorio negatiboak? (2-3 ondorio identifikatu)
- Aldi berean, zeintzuk uste duzue direla kontsumo eredu basatiek pobrezia egoera pairatzen duten hegoaldeko herrialdeetan sortzen dituzten ondorio kaltegarriak? (Pobrezia, osasun arazoak, desberdintasunak...) Lotu munduko arazo orokor larriekin.
- Saltoki txiki bateko jabeak bazinatekete, zein neurri hartuko zenituzkete kontsumo arduratsuago bat bultzatzeko?
- Administrazio edo politikariak bazinatekete, berriz, GIHren inguruko zein neurri proposatuko zenituzkete Agenda 2030aren baitan?

Ebaluaketa eta hausnarketa

Talde bakoitzak 5 minutuko iraupena duen Rol-playing bat egingo du, eta irakasleak talde-lanaren ebaluazioa elementu modura erabil dezake; kontsumo arduratsuago bat bultzatzeko talde bakoitzak aurkezten dituen proposamenak eta horien sakontasun maila ebaluatu ditzake, eta baita Black-Friday moduko ekimen kontsumistek sorraraz ditzaketen ondorio kaltegarriak ere modu egokian identifikatu al dituzten.

Baliabideak eta materialak

- Proiektorea eta bozgorailuak
- Arbela
- Taldeka lan egiteko ordenagailuak eta Internet
- Bideoa GIH 12 (2 minutu):
<https://www.youtube.com/watch?v=4cXuOxlzZnw&list=PLVpRlgPG0eJmX-SEnHuS2J92WVlZBNdxDV&index=26>
- Black Fraude, por un día sin compras y 364 de consumo responsable (campaña de Setem 2018)
<http://ahotsa.info/edukia/black-fraude-por-un-dia-sin-compras-y-364-de-consumo-responsable>
- Informe semanal- Navidades in Black Friday
<http://www.rtve.es/alacarta/videos/informe-semanal/informe-semanal-navidades-in-black-friday/3819622/>
- 3 opciones alternativa para un Black Friday alternativo
<https://www.youtube.com/watch?v=u-SVueRtl1A>
<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/sustainable-consumption-production/>
- Saretuz: Donostiako kontsumo arduratsurako taldea
<https://ecosfron.org/te-presentamos-el-video-de-saretuz/>



Fitxa 13

GIH 13: Klima babesteko ekintza

Iraupena: 50-80 minutu
(saio bat edo saio bat eta erdi)



Jardueraren deskribapena

Saio honetan, 13. GIHa landuko da: "Klima babesteko ekintza". Fitxa hau Unitate Didaktiko honetako 1. sarrera fitxa landu ondoren irakasleak nahi duen unean gauzatu dezake. Esan bezala, ikasturtean zehar, tutoretza orduetan edota ikasgaiaren programazio didaktikoarekin gaia ondo txertatzeko aukera dagoenean gauzatu daiteke.

Saio honetan, hainbat kontzeptu landuko dira:

- Garapen Iraunkorreko 13. Helburua, "Klima babesteko ekintza", zertan datzan eta, batez ere, berehalako neurriak hartzeko beharra, klima-aldaketaren eta horren ondorioen aurka egiteko.
- Garapen iraunkorra eta "Klima babesteko ekintza"ren arteko lotura, eta beste 17 GIHekin duen interrelazioa.
- Klima-aldaketa, azterna ekologikoa eta berotze globala kontzeptuak zer diren, eta hegoaldeko eta iparraldeko herrialdeen arteko desorekak eta harremanak.

Kontzeptuak modu erakargarri batean lantzeko asmoz, fitxa honetan, euskarri ezberdinen erabilpena proposatzen da. Argazkiak, bideoak, web orriak eta abar egongo dira erabilgarri fitxa honetan (baliabideak eta materialak atalean).

Bestalde, kontzeptuen eta edukien barne-lana errazteko, talde dinamika bat proposatzen da, eta fitxako hurrengo ataletan azalduko da.

Helburu didaktikoak

- Klima-aldaketaren ondorioei buruzko ezagutza zabaltzea.
- Ekintzak garatzen hasteak duen garrantziaz jabetzea, eta berotegi-efektuko gasen igorpenak murriztea.
- Ikasleak sentiberatzea gure eguneroko ohituretako askok duten ingurumen-inpaktuaren aurrean, gure azterna indibiduala eta taldeko azterna kuantifikatuz.
- Klima-aldaketak eragindako hondamendi ekologikoez ohartaraztea (uholdeak, urakanak, lehorteak, lurrikaren inpaktuak).
- Gaur egungo kontsumo-tasekin eredu energetiko global iraunkor bati eustea ezinezkoa dela jabearaztea, eta ordezeko beste eredu batzuk planteatzea.

Saioaren garapena

Saio hau hasteko, irakasleak, labur-labur, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuak zer diren gogoratuko du. Ondoren, "Klima babesteko ekintza" Garapen Iraunkorrerako 13. helburuaren azalpena modu erraz eta motibagarri batean gauzatzeko, 2 minututako iraupena duen bideo hau jar dezake:

GIH 13 | Klima babesteko ekintza



<https://www.youtube.com/watch?v=uxZ1-3tVOWw>

Bideoa ikusten duten bitartean, ondorengo galderak proposatuko dira, ikasle bakoitza bakarka erantzuten joateko. Bideoa 2 aldiz ikus daiteke, erantzunak hobeto identifikatzeko.

Irakaslearentzat lagungarria izan daiteke ondorengo orrialdean dagoen informazioa aurrez ikustea, dinamizazio lana errazteko:

<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/climate-change-2/>

HASIERAKO BIDEOA LANTZEKO GALDEREN PROPOSAMENA:

- Zeintzuk dira giza jardueraren eraginez klima-alaketak sorturiko ondorio nagusiak? Zer da zure hitzetan klima-alaketa?
- Zer azpimarratzen du 2030 Agendak klima-alaketak sorturiko ondorio negatiboak murriztearen inguruan?
- Klima-alaketari buruzko Nazio Batuen esparru-hitzarmenak zer bultzatzen du?
- Garrantzitsua ikusten duzu? Zergatik?
- Zure ustez, klima-alaketak zergatik du eragin handiagoa herrialde pobreetan? Zein herrialdek dute ardura handiagoa klima-alaketaren arazoaren aurrean? Zergatik?

Ondoren, galderen erantzunak partekatuko dituzte, klima-aldaketa kontzeptua guztien artean definituko dute, eta 13. helburuaren erronka nagusien inguruan hausnarketa bat egingo da guztien artean. Oso garrantzitsua izango da klima-aldaketak sorturiko ondorio negatiboak ondo identifikatzea, eta hegoaldean eta iparraldean izan ditza-keten ezberdintasunen inguruko hasierako gerturatze-lan bat egitea. Aldi berean, beste 17 GIHekin (Garapen Iraunkorreko Helburuak) dituen loturak identifika ditzakete. Adibidez, Iparraldeko herrialdeen kontsumo- eta ekoizpen-eredu kapitalisten ondorioz hegoaldean pairatzen dituzten ondorio negatiboak eta horrek sortarazten dituzten osasun arazo kaltegarriak, gizartearen arteko ezberdintasunak eta abar. (GIH 12, GIH 3, GIH 10 eta GIH 6).

Behin bukatuta, aukera bezala, 3-4 minutuko iraupena daukan ondorengo bideoa ikus daiteke. Horrela, aurreko bideoarekin loturiko hainbat elementu berri modu erakargarri batean lantzeko aukera aproposa izan daiteke. Bideoa ikusten duten bitartean, behean proposatzen den galdera-sortari erantzun diezaiokete, eta, ondoren, guztien artean parteka ditzakete erantzunak, bai eta sorturiko zalantzak eta hausnarketak ere (10 minutu):

Draw my life: "El Cambio Climático": klima-aldaketaren arrazoiak eta ondorioak ulertzeko oinarritzko kontzeptuak laburtzen dituen hiru minutuko bideo hipnotikoa.

https://www.youtube.com/watch?time_continue=205&v=L9bgqLQ7OZc

BIGARREN BIDEOAREN INGURUKO GALDEREN PROPOSAMENA:

- Zeintzuk dira klima-aldaketaren arrazoi nagusiak? Noiz edo zein garaitan hasi ziren agertzen historian zehar?
- Zeintzuk dira klima-aldaketaren ondorio garrantzitsuenak?
- Zein erlazio dago ozono-geruzaren eta berotegi-efektuaren artean?
- Zer egingo zenukete, aldaketa klimatikoaren aurka borrokatzeko?
- Zeintzuk izan daitezke arazo hauei aurre egiteko konponbide nagusiak? Eta nork gauzatu beharko lituzke?
- Badago loturarik klima-aldaketaren eta hondamendi naturalen artean?

Ondoren, irakasleek **bikoteak** osatuko ditu, eta ondorengo ariketa aurkeztuko du:

Aurreko ariketetan egiaztatu dugun bezala, klima-aldaketa gertatzen ari da munduko herrialde guztietan (iparraldean eta hegoaldean), eta ondorio negatibo ugari sortzen ari da bertako ekonomietan eta pertsonen bizitzaren kalitatean. Guk, ikasleok, herri-tartasun globaleko kide gisa, klima-aldaketa gelditzeko betebeharra daukagu.

Hasteko, pentsatu zure eguneroko bizitzan, jaiki eta gero:

- Zer jarduera egiten dituzu? Garraiobiderik erabiltzen duzu eskolara iristeko?
- Zure eguneroko jardueretan, noiz erabiltzen duzu ura? Zenbat oihal-poltsa dituzu etxean?
- Zenbat zabor-poltsa botatzen dira eguneko zure etxean?
- Une honetan, zenbat etxetresna elektriko dituzue zure etxean?
- Zure etxean berrerabiltzen dira ontziak?

Orain, herri pobretu batean (Hegoaldeko herrialde batean) bizi den zure adineko mutil edo neska baten eguneroko bizitzan zaudete. Hegoaldeko herrialde pobretu bat aukeratu beharko duzue. Nolakoa uste duzue izan daitekeela bere aztarna ekologikoa? Gure eguneroko bizitzaren oso antzekoa dela uste duzue? Begiratu Interneten zein den kontzeptu horren esanahia, eta, ondorengo web orriaren bitartez, kalkulatu herri pobretuko mutil edo neskaren aztarna ekologikoa. Ariketa luzatzeko denbora izanez gero, ikasle bakoitzaren aztarna ekologikoa ere kalkula daiteke.

www.tuhuellaecologica.org


Ondoren, talde handian, bikote bakoitzak bere hausnarketa partekatuko du.

Ebaluaketa eta hausnarketa

Bikote bakoitzak aztarna ekologikoaren inguruan egin duen hausnarketa partekatuko du, eta irakasleak haien hausnarketa maila eta hausnarketaren kalitatea ebaluaziorako elementu modura erabili ditzake.

Baliabideak eta materialak

- Proiektorea eta bozgorailuak
- Arbela
- Taldeka lan egiteko ordenagailuak eta Internet
- Bideoak :
 - GIH 13 | Klima babesteko ekintza
<https://www.youtube.com/watch?v=uxZ1-3tVW0w>
 - Draw my life: "El Cambio Climático" (3:25 min):
https://www.youtube.com/watch?time_continue=205&v=L9bgqLQ7OZc
 - Zure aztarna ekologikoa neurtzeko web orria:
www.tuhuellaecologica.org
- 13. GIHaren inguruan informazioa zabaltzeko web orria:
<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/climate-change-2/>



Fitxa 14

GIH 14: Itsaspeko bizia

Iraupena: 55-80 minutu
(saio bat edo saio bat eta erdi)



Jardueraren deskribapena

Saio honetan, Garapen Iraunkorrerako 14. Helburua landuko da: "Itsaspeko bizia". Irakasleak nahi duenean erabil dezake fitxa hau, unitate didaktiko hau aurkezteko lehen fitxa landu ondoren. Esan bezala, ikasturtean zehar, tutoretza-orduetan egin daiteke, edo gaia ikasgaiaren programazio didaktikoan egoki txerta daitekeela uste dugunean.

Saio honetan, hainbat kontzeptu landuko dira:

- Garapen Iraunkorrerako 14. Helburua zer den ("Itsaspeko bizia").
- Garapen iraunkorraren eta "Itsaspeko bizia" helburuaren arteko lotura, eta gainerako GIHein duen lotura.
- Arrantza jasangarria.
- Itsas ekosistemen babesa.

Kontzeptuak modu erakargarrian lantzeko asmoz, fitxa honetan zenbait euskarri erabil-tzea proposatzen da. Bideoak, web-orriak eta abar egongo dira erabilgarri, baliabideak eta materialak atalean.

Bestalde, ikasleek kontzeptuak eta edukiak errazago barnera ditzaten, talde-dinamika bat egitea proposatzen da. Talde-dinamika hori hurrengo atalean azalduko dugu.

Helburu didaktikoak

- Itsas ekosistemak babesteak giza biziarentzat duen garrantziari buruz kontzientziaztea.
- Itsaspeko biziak jasan beharreko arrisku nagusiei buruz hausnartzea, eta arrisku horiek giza ekintzekin lotzea.
- Itsaspeko biziaren jasangarritasuna bermatzeko neurriak eta aldaketak baloratzea.

Saioaren garapena

Saio hau hasteko, irakasleak, labur-labur, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuak zer diren gogoratuko du. Ondoren, Garapen Iraunkorrerako 14. Helburua modu erraz eta motibagarrian azaltzeko, 2 minutuko bideo hau jar daiteke:

GIH 14| Itsaspeko bizia



<https://www.youtube.com/watch?v=IXec8YlxyTo>

Bideoa ikusi ondoren, helburu horren erronka nagusiak zein diren hausnartuko du ikasle bakoitzak bakarrik, eta gero, ikasleek hausnarketa egingo dute denek batera (10 minutu). Honako galdera hauek egin daitezke: Zer gertatuko litzateke itsaspeko bizia desagertuko balitz? Nola erregulatzen dute klima ozeanoek?

Jarraian, ikasleak 4 taldetan banatuko dira, eta "Ozeanoen arazoak" gaiari buruz ikertuko dute (35-55 minutu). Talde bakoitzak arazo jakin bati buruzko informazioa bilduko du Internet erabiliz, eta, gero, aurkezpen bat egingo du gainerako ikaskideen aurrean (3-4 minutu talde bakoitzak). Nahi izanez gero, ikasleei denbora gehiago eman dakieke diapositibak ere erabil ditzaten aurkezpenean. Ikasleek honako arazo hauei buruz ikertzea proposatzen da:

- Gehiegizko arrantza: Zer da? Zer ondorio ditu? Zer neurri proposatzen dituzu itsaspeko bizia babesteko?
- Kutsadura: Zein dira ozeanoen kutsatzaile nagusiak? Zer ondorio ditu kutsatzaile mota bakoitzak? Zer neurri proposatzen dituzu ozeanoen kutsadura murrizteko?
- Klima-aldaketa: Zer ondorio ditu ozeanoen tenperaturak gora egiteak? Eta zer ondorio geroz eta CO2 gehiago egoteak? Zer neurri proposatzen dituzu klima-aldaketaren inpaktua txikitzeke?
- Kostaldean eraikitzea: Zer-nolakoak dira kostaldean eta itsasoan egin ohi diren eraikinak? Zer ondorio kaltegarri ditu hori egiteak itsaspeko biziarentzat? Zer neurri proposatzen duzu kostaldeak babesteko?

Egoki irudituz gero, irakasleak honako termino hauetako batzuetara bidera dezake ikasleen ikerketa:


- Gehiegizko arrantza: legez kontrako arrantza, arrantza jasangarria, nazioarteko urak, arrantza-kuota, eskuz egindako arrantza.
- Kutsadura: metal astunak, legez kontrako isurtzeak, hondakinen kudeaketa, material biodegradagarriak.
- Klima-aldaketa: ozeanoen azidotzea, itsas mailaren igoera.
- Kostaldean eraikitzea: dikeak, petrolio-plataformak, Kostalde Legea, babestutako eremuak.

Ebaluaketa eta hausnarketa

Aurkezpenen kalitatea ebalua daiteke, bai eta diapositiben edukia ere, aurkezpenean diapositibarik balego.

Baliabideak eta materialak

- Proiektorea eta bozgorailuak
- Arbela
- Ordenagailuak eta Internet, talde-lanerako
- Garapen Iraunkorrerako 14. Helburuari buruzko bideoa (2 minutu):
<https://www.youtube.com/watch?v=IXec8YlxyTo>
- Garapen Iraunkorrerako 14. Helburuari buruzko informazio gehiago lortzeko web-orria:
<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/oceans/>



Fitxa 15

GIH 15: Lehorreko Bizitza

Iraupena: 55-80 minutu
(saio bat edo saio bat eta erdi)



Jardueraren deskribapena

Saio honetan 15.GIH landuko da: "Lehorreko Bizitza".

Garapen Iraunkorrerako Helburu honen bitartez, lehorreko bizitza babestu nahi da, basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa inbertitzea eta biodibertsitatearen galera gelditzea nahi da.

4. fitxa hau, Unitate Didaktiko honetako sarrera fitxa landu ondoren irakasleak nahi duen momentuan gauzatu dezake. Esan bezala, ikasturtean zehar, tutoretza orduetan edo eta dagokion ikasgaiaren programazio didaktikoarekin gaia ondo txertatzeko aukera dagoenean gauzatu daiteke.

Saio honetan hainbat kontzeptu landuko dira:

- Garapen Iraunkorreko 15. helburua zer den eta honen bidez bilatzen diren onurak.
- Biodibertsitate kontzeptua eta honen galerak dituen arazo nagusienak.
- Garapen iraunkorra eta lehorreko bizitzaren arteko lotura.
- Ingurumen biografiak zer diren eta Euskal-Herriko eta Hegoaldeko hainbat herrialdeetako adibideak.

Kontzeptuak modu erakargarri batetan lantzeko asmoz, talde lan bat proposatzen dira eta hainbat euskarri erabiliko dira: argazkiak, bideoak, web orriak fitxa honetan egongo dira erabilgarri (baliabideak atalean).

Helburu didaktikoak

- "Aniztasun biologikoa" kontzeptua ezagutu eta erabiltzea, gaur egun hori galtzeak dakartzan arazoez jabetzeko.
- Basamortutzeak sorrarazten dituen arazoez eta ondorioz jabetzea.
- Pertsonen bizitzarako eta ongizaterako eta animalien, landareen eta intsektuen espezie gehienek habitaterako basoak duen garrantziari buruz hausnartzea, horren inguruko datu eta informazioan oinarrituta.

Saioaren garapena

Saio honi ekiteko, irakasleak, labur-labur, Garapen Iraunkorrerako Agenda 2030 eta Garapen Iraunkorrerako 17 helburuak zer diren gogoratuko ditu. Ondoren, Garapen Iraunkorrerako 15. helburua "Lehorreko bizitza"-ren azalpena modu erraz eta motibagarri baten gauzatzeko 2 minututako iraupena daukan ondorengo bideoa jarri dezake:

GIH 15 | Lehorreko bizitza



<https://youtu.be/GnLD-2k2Vbc>

Irakasleak saioa prestatzeko 15.GIH-aren inguruko informazio gehiago behar izanez gero, ondorengo web orria kontsultatu dezake. Bertan hainbat datu esanguratsu izango ditu eskuragarri saioan zehar aipatzeko:

<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/biodiversity/>

Behin bideoa ikusi ondoren, ikasle bakoitzak bakarka eta gero talde haundian zeintzuk diren helburu honen erronka nagusienak partekatuko dituzte eta hausnarketa bat egingo da guztien artean (10 minutu). Irakasleak hausnarketa dinamizatuko du eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua gidatuko du.

Ondoren, ikasleak 4-5 pertsonetako taldeak osatuko dituzte eta ondorengo talde-lana azalduko zaie: "Ingurumen biografiak Iparraldean eta Hegoaldean" (45-50 minutuko iraupena)

Hasteko, irakasleak ingurumen biografia bat zertan datzan azalduko du. Horretarako, ondorengo materiala kontsultatu dezake eta "Idatzi zuk zeuk ingurumen biografia bat" atalean sartu:

<https://www.unescoetxea.org/dokumentuak/biografiak.pdf>

Modu honetara, ikasleek ingurumen biografia baten ezaugarriak eta funtzioak zeintzuk diren ezagutuko dituzte. Ondoren talde bakoitzari ingurumen biografia erreal

bat egokituko zaio. "Ingurumen biografiak" publikazioan Euskal-Herriko 3 pertsonen esperientziak eta munduko beste 14 herrialdeetako hainbat emakume eta gizezkoen biografiak daude eskuragarri. Ingurumen biografiak aukeratzeko eta talde bakoitzari egokitzeko momentuan garrantzitsua izango da iparraldeko eta hegoaldeko herrialde ezberdinen esperientziak ezagutzea eta baita emakumeen esperientziak ere.

Modu honetara, hegoalde eta iparraldeko herrialdeen arteko desberdintasunak aztertutako ahal izango dituzte eta baita emakumeen egoera konkrituak ere. Talde bakoitzak egokitu zaion ingurumen biografia aztertutako beharko du eta ondoren 7-8 argazki esanguratsuz osaturiko aurkezpen bat prestatu beharko du (pechakucha) formatua jarraituz biografiaren elementu esanguratsuenak talde osoari erakusteko. Hau da, argazkiak soilik erabiliz. Horretarako 30 minutu inguru izango dituzte. Aurkezpen bakoitza, gehienez 5 minututako izango da.

Aukerazko jarduera gehigarria

Gaia gehiago sakontzeko motibazioa izanez gero beste saio bat erabili daiteke talde bakoitzak ingurumen biografia bat sortzeko. Jarduera hau indibidualki ere egin daiteke. Horretarako, beraien gertuko pertsona nagusiren bat elkarriketatu dezakete eta ariketa polita izan daiteke gertuko esperientziak ezagutzeko eta beraien gertuko ingurumen naturalak izandako aldaketen inguruan ere hausnartzeko. Horretarako "Ingurumen biografiak" publikazioan fitxa bat dago azalpen guztiekin.

Ebaluaketa eta hausnarketa

Taldeko aurkezpenak egin ondoren irakaslearen laguntzarekin ondorio nagusiak partekatutako dituzte eta 15. GIH-aren hausnarketa orokor bat partekatutako dute. Irakasleak, ebaluaketa modura, aurkezpenetan talde bakoitzak landutakoa erabili dezake.

Baliabideak eta materialak

- Ordenagailua, proiektorea eta altabozak
- Internetera konexioa eta talde bakoitzarentzat ordenagailu bat
- Arbela eta tizak edo koloretako errotulagailuak

Ingurumen biografiak publikazioa:

<https://www.unescoetxea.org/dokumentuak/biografiak.pdf>

Biodibertsitatearen inguruko datuak:

<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/biodiversity/>

<https://www.elcorreo.com/sociedad/pinos-euskadi-mueren-20180909183252-nt.html>

https://www.berria.eus/paperekoa/1944/012/001/2018-09-02/pinuak_hil-zorian_daude.htm



Fitxa 16

GIH 16: Bakea, justizia eta instituzio sendoak

55-80 minutu
(saio bat edo saio bat eta erdi)



Jardueraren deskribapena

Saio honetan, Garapen Iraunkorrerako 16. Helburua landuko da: "Bakea, justizia eta instituzio sendoak". Irakasleak nahi duenean erabil dezake fitxa hau, unitate didaktiko hau aurkezteko lehen fitxa landu ondoren. Esan bezala, ikasturtean zehar, tutoretza-orduetan egin daiteke, edo gaia ikasgaiaren programazio didaktikoan egoki txerta daitekeela uste dugunean.

Saio honetan, hainbat kontzeptu landuko dira:

- Garapen Iraunkorrerako 16. Helburua zer den ("Bakea, justizia eta instituzio sendoak").
- Garapen iraunkorraren eta "Bakea, justizia eta instituzio sendoak" helburuaren arteko lotura, eta gainerako GIHein duen lotura.
- Berdintasuna justiziarako sarbidean.
- Instituzioen ustelkeria.
- Bakean eta elkarrekin bizitzeko baldintzak.

Kontzeptuak modu erakargarrian lantzeko asmoz, fitxa honetan zenbait euskarri erabil-tzea proposatzen da. Bideoak, web-orriak eta abar egongo dira erabilgarri, baliabideak eta materialak atalean.

Bestalde, ikasleek kontzeptuak eta edukiak errazago barnera ditzaten, bi talde-dinamika egitea proposatzen da. Talde-dinamika horiek hurrengo atalean azalduko ditugu.

Helburu didaktikoak

- Instituzio etikoak eta gardenak edukitzearen garrantziari buruz kontzientziaztea.
- Gizarteak indarkeria-egoeretan duen zereginari buruz hausnartzea.
- Bake- eta elkarbizitza-kultura bat sustatzea.

Saioaren garapena

Saio hau hasteko, irakasleak, labur-labur, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuak zer diren gogoratuko du. Ondoren, Garapen Iraunkorrerako 16. Helburua modu erraz eta motibagarrian azaltzeko, 2 minutuko bideo hau jar daiteke:

GIH 16| Bakea, justizia eta instituzio sendoak



<https://www.youtube.com/watch?v=k3ec6Ylxy54>

Bideoa ikusi ondoren, helburu horren erronka nagusiak zein diren hausnartuko du ikasle bakoitzak bakarrik, eta gero, ikasleek hausnarketa egingo dute denek batera (10 minutu). Honako galdera hauek hausnarketa hori bideratzeko balio dezakete:

- » Nola eragiten dio ustelkeriak demokraziari? Norentzat dira ustelkeriaren onurak?
- » Zure ustez, zergatik da garrantzitsua zergak ordaintzea?

Jarraian, ikasleek 4-5 kideko taldeak egingo dituzte, eta honako gai hau landuko dute: "Indarkeria-egoerak jasaten dituzten haurren istorioak" (20 minutu). Talde bakoitzak baliabideak eta materialak atalean erreferentziatutako "Indarkeria ulertzea komunitatean" izeneko dokumentuko 3 testigantza irakurriko ditu (Nigeriako Alia-rena, El Salvadorreko Susanarena eta Estatu Batuetako Hanh-ena). Hori egin ondoren, honako galdera hauei erantzun beharko diete, hiru istorio horiek kontuan hartuta:

- » Zer motatako indarkeriei buruz hitz egiten da? (indarkeria fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa, sexu-indarkeria, etab.).
- » Uste al duzu herrialde horiek halako egoeran egoteak indarkeria horiek gertatzea erraztu duela? Nola?
- » Zure ustez, zer neurri har ditzakete instituzioek, etorkizunean halako indarkeriak egoteko aukerak murrizteko?

Dinamika amaitzeko, irakasleak ikasleei galdetuko die ea horrelako indarkeriak eragiten dituzten kausak berak diren ala ez, eta kausa horiek garapen iraunkorrerako gainerako helburuekin lotzen saiatuko dira, justiziarako sarbidean berdintasuna egotearen garrantzia nabarmenduz.

Saio hau amaitzeko, horma-irudi bat egitea proposatzen da, gai honi buruzkoa: "Bakean eta elkarrekin bizitzea" (20 minutu). Horretarako, ikasle bakoitzak bakean bizitzearekin lotutako esaldi bat idatz dezake post-it batean, eta kartoi mehe batean itsatsi gero (5 minutu). Hori egin ondoren, ikasleek 4 talde egingo dituzte, eta talde bakoitzak Lurrean bakean eta elkarrekin bizitzeko bere proposamenak idatziko ditu folio batean. Talde bakoitza lau gai hauetako bati buruz aritu daiteke:

- Armak eta indarkeria.
- Pobrezia.
- Mundu-gobernantza eta gatazka-konponketa.
- Sexuagatiko, etniagatiko edo jatorriagatiko diskriminazioa.

Talde bakoitzak bere proposamenak laburbildu eta aurkeztuko ditu, eta horma-irudi bat egingo dute talde guztien artean. Horma-irudiari zer izenburu jarri erabakiko dute, eta, amaitzeko, horma-irudia apainduko dute.

Ebaluaketa eta hausnarketa

Testuinguru sozioekonomikoa eta indarkeria-istorioak lotzerakoan, talde bakoitzaren gogoeten eta argudioen kalitatea erabil dezake irakasleak, ebaluazio-irizpide gisa. Horma-irudiko testuak ere ebaluagarriak izango dira.

Baliabideak eta materialak

- Proiektorea eta bozgorailuak
- Arbela
- Ordenagailuak eta Internet, talde-lanerako
- 2 kartoi mehe eta post-itak "Bakean eta elkarrekin bizitzea" horma-irudia egiteko.
- Garapen Iraunkorrerako 16. Helburuari buruzko bideoa (2 minutu):
<https://www.youtube.com/watch?v=k3ec6Ylxy54>
- Indarkeria-egoerak jasaten dituzten haurren istorioak (9., 10. eta 12. orrialdeak).
http://cdn.worldslargestlesson.globalgoals.org/2016/07/11-Understanding-Community-Violence_IK_Español.pdf
- Garapen Iraunkorrerako 16. Helburuari buruzko informazio gehiago lortzeko web-orria:
<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/peace-justice/>



Fitxa 17

GIH 17: Itunak helburuak lortzeko.

55-80 minutu
(saio bat edo saio bat eta erdi)



Jardueraren deskribapena

Saio honetan, Garapen Iraunkorrerako 17. Helburua landuko da: "Aliantzak helburuak lortzeko". Irakasleak nahi duenean erabil dezake fitxa hau, unitate didaktiko hau aurkezteko lehen fitxa landu ondoren. Esan bezala, ikasturtean zehar, tutoretza-orduetan egin daiteke, edo gaia ikasgaiaren programazio didaktikoan egoki txerta daitekeela uste dugunean.

Saio honetan, hainbat kontzeptu landuko dira:

- Garapen Iraunkorrerako 17. Helburua zer den ("Aliantzak helburuak lortzeko").
- Garapen iraunkorraren eta "Aliantzak helburuak lortzeko" helburuaren arteko lotura, eta gainerako GIHein duen lotura.
- Ohiko arazoak.
- Mundu-mailako eragileen arteko aliantzak, inor atzean utzi gabe.

Kontzeptuak modu erakargarrian lantzeko asmoz, fitxa honetan zenbait euskarri erabil-tzea proposatzen da. Bideoak, web-orriak eta abar egongo dira erabilgarri, baliabideak eta materialak atalean.

Bestalde, ikasleek kontzeptuak eta edukiak errazago barnera ditzaten, talde-dinamika bat egitea proposatzen da. Talde-dinamika hori hurrengo atalean azalduko dugu.

Helburu didaktikoak

- Mundu-mailako arazoak konpontzeko, inplikaturako eragile guztiek parte hartzearen garrantziari buruz kontzientziaztea.
- Neurriak hartzerakoan, eragile bakoitzak egin dezakeenari buruz hausnar-tzea.
- Konponbide bakoitzak eragile bakoitzarentzat abantaila eta desabantaila desberdinak izan ditzakeela kontuan hartzea.
- Kotsentsua bilatzearen garrantzia balioestea.

Saioaren garapena

Saio hau hasteko, irakasleak, labur-labur, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuak zer diren gogoratuko du. Ondoren, Garapen Iraunkorrerako 17. Helburua modu erraz eta motibagarrian azaltzeko, 2 minutuko bideo hau jar daiteke:

GIH 17 | Aliantzak helburuak lortzeko



<https://www.youtube.com/watch?v=EXecpYl2y3o>

Bideoa ikusi ondoren, helburu horren erronka nagusiak zein diren hausnartuko du ikasle bakoitzak bakarrik, eta gero, ikasleek hausnarketa egingo dute denek batera (10 minutu). Honako galdera hauek hausnarketa hori bideratzeko balio dezakete:

- Zure ustez, zer ekarpen egin dezake eragile hauetako bakoitzak klima-aldaketa bezalako mundu-mailako arazo baten aurrean konponbideak bilatu eta aplikatzeko orduan?
- Gobernuek.
- Enpresa multinazionalak.
- Gizarte Zibilak (GKEek, erakunde ekologistek, etab.).
- Zergatik da garrantzitsua, besteak beste, diru-sarreraren, sexuaren eta adinaren arabera datuak lortzea?

Hori egin ondoren, ikasleak 3 taldetan banatuko dira, eta "denen arazo bati aurre egingo aliantza" egingo dute (40-60 minutu). Dinamika hori Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziaren (AECID) argitalpeneko jarduera honetan oinarritua dago: "Garapen Iraunkorrerako Helburuen erronka Bigarren Hezkuntzan: garapenerako irakaskuntza-programa".

https://sede.educacion.gob.es/publiventa/descarga.action?f_codigo_agc=18829]

Laku handi baten inguruan hiru herrialde daude. Hiru herrialdeek lakua eta haren baliabideak partekatzen dituzte, baina ez dituzte interes berak.

- A herrialdea: Turismotik bizi da, eta lakuaren ondoan egoteari esker, diru-sarrera handiak lortzen ditu.
- B herrialdea: Haren jarduera nagusia arrantza da, eta lakuaren inguruko herriek lakuan arrantzatu behar dute dirua lortu eta bizirik irauteko.
- C herrialdea: Herrialde horretan, fabrika handi bat dago lakuaren ondoan, eta herritar gehienek fabrika horretan egiten dute lan.

Herrialdeei arazo hau sortuko zaie: "Hiru herrialdeek urtero-urtero egiten duten bileran, komunitate zientifikoaren bermea duen txosten independente bat aurkeztu diete. Txosten horretan, lakuko ura oso kutsatuta dagoela esan diete hiru herrialdeei, eta berehalako neurriak hartzeko eskatu".

Talde bakoitzak talde baten tokian jarriko da. Herrialde bakoitzak bilera bat egin, eta txosten bat idatziko du honako galdera hauei erantzuteko:

- » Zein dira lakuaren kutsaduraren ustezko jatorriak?
- » Zer-nolako eragina izan dezake kutsadurak herrialde bakoitzean?
- » Zer neurri har litezke lakuaren kutsadura-maila murrizteko, eta zer ondorio izango lituzke neurri horietako bakoitzak herrialde bakoitzean?
- » Konponbide horietakoren bat herrialde guztientzat onuragarria al da? Proposatu herrialderik kaltetzen ez duen konponbide bat.

Herrialde bakoitzak bi pertsona aukeratuko ditu, eta bi pertsona horiek herrialde horren bozeramaileak izango dira. Zirkuluerdi bat eginez eseriko dira gainerako ikaskideen aurrean. Lehenengo txandan, bozeramaileek beren txostenetako emaitzak partekatu dituzte elkarren artean. Gero, hiru herrialdeentzat ona den konponbidea adosten saiatuko dira, eta konponbide horri buruzko akordioa idatziko dute. Azkenik, taldearen argazki bat egin daiteke. Argazki hori lakuaren etorkizuna babesteko aliantzaren isla izango da.

Ebaluaketa eta hausnarketa

Taldeek idatzitako txostenak erabil ditzake irakasleak ebaluazio-irizpide gisa, bai eta elkarriketarako eta adosteko haiek erakutsitako gaitasuna ere.

Baliabideak eta materialak

- Proiektorea eta bozgorailuak
- Arbela
- Ordenagailuak eta Internet, talde-lanerako
- Garapen Iraunkorrerako 17. Helburuari buruzko bideoa (2 minutu):
<https://www.youtube.com/watch?v=EXecpYI2y3o>
- Garapen Iraunkorrerako 17. Helburuari buruzko informazio gehiago lortzeko web-orria:
<http://www.un.org/sustainabledevelopment/es/globalpartnerships/>